

Goienka

EGUBAKOITZA • 2002ko maiatzaren 24a • III. urtea • 66. zenbakia • DOAN BANAKATUA



Goienka2a

Toreatzaile izan nahi duten hiru gazterekin egin dugu berba

JOSE ANTONIO AZPIAZU

“Toledoko ezpata famatuak Arrasaten egiten zituzten XVI. mendean” /7

KULTURA

Bergarako Mendekoste jaiei gainbegiratu zabala egin diegu /15



ALBERTO IÑURRATEGI MENDIZALEARI ONGIETORRI BEROA ESKAINI DIOTE ARETXABALETARREK, ANNAPURNATIK ITZULI OSTEAN /8-9

OÑATIKO ENPRESA ZIENTZIETAKO FAKULTATEAN

Ekintzaile gazteendako sariak

Oñatiko Enpresa Zientzien Fakultateko Berrikuntza Teknologikoen eta Ekintzailetasunaren Zentroak (CITEM) bigarren aldiz antolatu du aurten Ekintzaile Gazteendako Lehiaketa. Fakultateko ikasleei zuzendutako lehiaketa da, bai azkeneko ikasturteko ikasleei bai eta graduatu ondokoei ere. Sari banaketa eguen arratsaldean egin zuten ETEOn, MUko Oñatiko Fakultatean.

Hogeita hamasei proiektu aurkeztu dituzte lehiaketara.

■ *Atzo banatu zituzten sariak Oñatin, MUko Fakultatean*

■ *Hogeita hamasei proiektu aurkeztu dituzte lehiaketara*

Horietatik, sei proiektu iritsi ziren finalera, eta guztiek jaso dute sariren bat. Proiektuok egia bihurtzea da asmoa. /5

ARRASATE

Roneoko metalezko zubia kendu dute

Eroski inguruan dagoen Zabalako zubia oraingo astean hasi dira desmuntatzen. Horren ordez beste bat eraikiko dute, baina berria errepidearen maila berean egingo dute eta ez errepidearen gainetik. /5

ANTZUOLA

EHNA tramitatzen hasiko da Udala

Maiatzeko osoko bilkuran aho batez onartu zuen udalbatzarrak Euskal Herriko Naziotasun Aitormena tramitatzea, Bai Euskal Herriari taldeak egindako proposamena onartuta. Astelehenean hasiko dira horretan. /5

ESKORIAZTA

Umeen danborrada kolokan dago

Urteak daramatzate Eskoriatzan San Pedro jaietan umeen danborrada egiten, baina aurten jendea falta da antolaketa lanetan laguntzeko. Bertan behera uztekoan egon dira, baina azken saiakera egingo dute. /5



ENEKO AZKARATE

Gureak lantegi berria Bergaran

Gaurtik, maiatzaren 24tik, aurrera, Debarroan urritasun fisiko zein psikikoren bat duten langileek zerbitzu eta baliabide gehiago dituzte eskura. Izan ere, inauguratu berri dute Bergarako Gureak lantegi berria. Labegarietako industrialdean dago, hiru solairu ditu eta 1.200 metro koadroko hedadura. Atzegik, gutxituen aita-amek osatutako elkarteak, bultzatutako ekimena da Gureak, eta urritasunak dituztenei lan aukerak emateko proiektua da. Inaugurazio ekitaldia gaur, egubakoitza, goizean egitekoa zen. Argazkian, Gureak lantegian diharduten batzuk. /3



**ZURE KARTELAK,
 PROPAGANDA,
 IRAGARKIAK, OHARRAK,
 KAMISETAK, EZKONTZA
 GONBIDAPENAK ...
 ATAI-N DISEINA
 ETA GERTATU DITZAKEGU**

Tel.: 943 79 81 66
 E-mail: atai@vianwe.com
 ARETXABAETA




Oñatiko
Alde Zaharrean
Oñati
ostatua

18 logela
denak bainua, telebista eta aire egokituarekin

Elbarrituendako prestatua

Egongela eta gosariak hartzeko txokoa

Informazioa eta erreserbak:
Kale Zaharra, 19
Tel.: 943 71 82 85 • Faxe: 943 71 82 84
administracion@ongi.e.telefonica.net



**OÑATIN BERTAN,
BERRIZTUTAKO ERAIKINA
EROSOTASUN GUZTIEKIN**

ONGI TABERNA
berriz ere zuen artean!

2002-2003 HEZKUNTZA ESKAINTZA



Goi-mailako Lanbide Heziketako B. Institutua
M. ALTUNA

GOI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK

- Administrazio eta Finantzak
- Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak
- Mekanizazio Bidezko Produkzioa
- Proiektu Mekanikoen Garapena
- Plastikoa eta Kautxogintza
- Idazkaritza (2 hizkuntza: ingelera eta frantsesa)*



ERDI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK

- Mekanizazioa
- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak
- Administrazio kudeaketa *

AURREMATRIKULA

Ekainaren 3tik 12ra

OHIKO MATRIKULA

Uztailaren 1etik 5ra

- Norberaren gaitasuna eta nahien arabera egokitutako ibilbideak.
- Behar diren baliabideekin
- Bide eta ate guztiak zabaltzen dituen ikasketak
- Eskola publikoa: integratzailea eta anitza

Berri gehiago nahi baduzu **"ATE IREKIAK"** izango ditugu maiatzaren 29an 18:00etatik 20:00etara.

Helbidea:
Ibargarai 1 • Tel.: 943 76 24 91 / 943 76 38 40 • Faxe: 943 76 38 41
Posta-e: imaltuna@ sarenet.es eta 013020aa@ hezkuntza.net
www. imaltuna.com

* Zertifikazioaren eremutik kanpo



Gureak lantegia

Urritasunak dituzten langileek tailer berria dute Debagoiengan

LEIRE KORTABARRIA

Gaurtik, maiatzaren 24tik aurrera, Deba arroan urritasun fisiko zein psikikoren bat duten langileek zerbitzu eta baliabide gehiago dituzte eskura. Izan ere, inauguratu berri dute Bergarako Gureak lantegi berria. Labegarietako industrialdean dago, hiru solairu ditu eta 1.200 metro koadroko hedadura.

Atzegik, gutxituen aita-amek osatutako elkarteak bultzatutako ekimena da Gureak, eta urritasunak dituztenei lan aukerak emateko proiektua da.

KUDEAKETA ETA EGUNEKO ZENTROA

Bergarako lantegi berria ez da lantegi soila izango, baina. Zerbitzu berri batzuk ere eskainiko ditu, Debagoieneko langileendako oso garrantzitsuak izango direnak.

Alde batetik, kudeaketa arloa dago. Orain arte, Gipuzkoako Gureak lantegi guztien kudeaketa Donostian egiten zen. Orain, ordea, Debagoieneko, Debabarreneko eta Urolako eskualdeetako lantegien bulegoak Bergarako lantegi berrian izango dira.

Bestalde, han lan egiteaz gain, beste zerbitzu batzuk ere izango dituzte Gureak lantegikoek. Jangela eta eguneko zentroa izango dituzte. Debagoiengan, orain arte, ez zegoen eguneko zentrorik, eta hori beharrezkoa dute urritasun larrienak dituzten langileek.

GIPUZKOAKO LEHENGOETARIKOAK

Bergaran, bi lantegi zituen Atzegi elkarteak. Gipuzkoan, hamabost lantegi daude gaur egun, eta horietatik lehenengoa izan zen Bergarakoa; gerora, beste bat zabaldu zuten herrian. Erret Seminarioan eta San Juango pabilioi baten zeuden; baina, biak ere, oso egoera kaskarrean. Bestalde,



ENEKO AZKARATE

Urritasun psikikoak eta fisikoak dituztenak ari dira Bergarako Labegarieta Industrialdean dagoen Gureak lantegian.

“Lantegiaz gain, zerbitzu berri eta garrantzitsuak ere kokatuko dira Bergaran”

Debagoiengan, Mondragoen dago beste Gureak lantegia.

Orain arte, beste bi lantegi zaharretan, 90 bat lagun ibili izan dira lanean. Horietatik %80k,

“Gipuzkoako lehenengo Gureak lantegia Bergaran zabaldu zuten, orain dela 25 urte”

urritasun psikikoak zituzten, eta gainerakoek, gutxitasun fisikoren bat. Hainbat herritako langileak dabilta lanean Bergaran: Oñatikoak, Elgetakoak, Antzuolako-

“Bi pabilioi, hiru solairu eta 1.200 metro koadro ditu Gureak lantegi berriak”

ak, Bergarakoak, Eibarkoak eta Plazentziakoak. Orain arte, beste herri batzuetakoak Arrasateko lantegira joaten ziren; orain, han 62 langilek dihardute.

ASIER VITORIA / BERGARAKO GUREAK LANTEGIKO GERENTEA

“Gure bezeroei hobeto erantzungo diegu”

Asier Vitoria Gureak lantegiko kudeatzailea da. Asierrek azaldu dizkigu egoitza berriak dakartzan aldaketak eta hobekuntzak.

Historia luzea zuen Bergarako Gureak lantegi zaharrak...

Bai, hala da. Gipuzkoa osoan zabaldu genuen lehenengo lantegia izan zen. 25 urte zituen, eta orduan zegoen bezala jarraitzen zuen. Apur bat bertan behera utzi-



ta zegoen, eta beste egoitza bat erosteko aukera ikusi bezain laster, horixe egin genuen.

Debarroko eta Urolako bulegoak Bergaran egongo dira.

Kontua da lehen kudeaketa Donostian zentralizatua zegoela, eta orain, deszentralizazio politika bati ekin diogu. Eibarko, Azkoi-tiko, Arrasateko eta Bergarako lantegiak Bergaratik kudeatuko dira. Horrek gure bezeroei erantzun hobea ematen lagunduko du.

Eguneko zentroa ere izango da, ezta?

Bai, eta hori ere berritasuna da. Urritasun larrienak dituzten langileendako aisialdi alternatiba bat da. Eskakizun handia zegoen arren, inguruan ez zegoen horrelako zentrorik. Adin batera iristerakoan, urritasun handiak zituztenek lantegia utzi eta etxean geratzen ziren, eta orain, beste aukera bat izango dute. Datuzen hilabeteotan abiaraziko dugu.

FILOSOFIA

Beste enpresa batzuentako ekoiztea

Gureak lantegiek ez dute berezko ekoizpenik, baizik eta hainbat enpresarendako ekoizten dute. Copreci, Fagor, Alecop, Lacor, Mayc eta horrelako enpresa garrantzitsuak dira Gureak lantegien bezero. Gureak lantegiak abian jarri zituztenean, bezero gutxi zituzten eta lan mekanikoak egiten zituzten langileek; orain, bezero kopurua urterik urte ugalduz doa, eta lana askoz konplexuagoa da.

EZAUGARRIAK

Bi lan sekzioan banatuko da lantegi berria

Bergarako lantegi berriak bi atal izango ditu. Batetik, muntaia atala izango da; hor, 65 bat lagun arituko dira. Bestetik, makina automatikoen kableatua egiteko atala dago, eta hor, hogeita hamar bat lagun -batez ere, urritasun fisikoak dituztenak- ibiliko dira lanean, hiru txandatan. Bergarako lantegia automozio sektorearendako eta makina automatikoendako kableatuak egiten dago espezializatua.

ZERBITZUA

Urritasun larriak dituztenendako

Lantegi izateaz gain, Gureak zerbitzua ere baden aldetik, urritasun handienak dituzten langileei arreta berezia eskaintzen die. Horrek esan gura du langile horiek okupazio erregimenean daudela, eta lan egiteaz gain, begiraleen arreta eta zaintza jasotzen dutela. Ordainsaria jasotzen dute, baina ez dute lan kontraturik. Horiei zuzendua dago, batik bat, eguneko zentroa: adin jakin batera iristerakoan, eguneko zentroan lan erosoagoak egitera pasatzen dira lagun horiek.

PROMOZIONATZEA

Erronka, langileen egoera gero eta hobea izatea

Urritasun mailaren arabera, lan bat edo beste egiten dute Gureak lantegietako langileek. Baina Gureak lantegietako erronka bat langileak promozionatzea da. Hori dela eta, erregimen batetik bestera pasatzeko eta diru ordain hobea lortzeko aukera dute Gureak lantegietako langileek.



Besteak beste, MCCko eta Mondragón Unibertsitateko ordezkariak izan ziren aurkezpen ekitaldian.

EDU MENDIBIL

Mondragón Negozio Eskola aurkeztu dute Bilboko Euskalduna jauregian

Unibertsitate osteko ikasketa guztiak bideratuko ditu erakunde horrek

ENEKO AZKARATE

Mondragón Negozio Eskola, MONE, aurkeztu zuten atzo, eguena, Bilboko Euskalduna jau-

regian. MCC, Mondragón Unibertsitatea eta LKS ingeniariaritz eta aholkularitza enpresa dira egitasmo horren bultzatzaile nagusiak. Unibertsitate osteko

ikasketa guztiak bideratuko dituzte MONEren bitartez. Oñatin izango du egoitza eta Oñatiko campus erraldoiaren bigarren urratsa izango da. Erakunde horretako presidentea Jose Ramon Goikoetxea MCCko presidenteordea izango da.

Etorkizunean beste erakunde eta enpresa batzuek ere parte hartzea da bultzatzaileen asmoa. MONE erakundearen helburua da enpresa buruak, hau da, enpresetako zuzendaritza karguak, heztea.

Larkano

KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK

Zure oinendako oinetako egokienak zeintzuk diren esango dizugu

- Kirol oinetakoetan espezialistak
- Anlisi biomekanikoak

Erosotasuna, lesioen prebentzioa... antzematen dituen makina berria

Barrenkale 15-17
Tel./Faxa: 943 76 25 03
BERGARA

BAILARANLABUR

Kurtzebarri Eskolako umeei saria eman diete

Aretxabaletako Kurtzebarri Eskolako bosgarren mailako ei Abelino Barriola Deklamazio Saria eman diete. Euskararen erabilera zuzena bultzatzeko egiten du lehiaketa hori Eusko Jaurlaritzak.

Abelino Barriola Deklamazio Saria ikasleei euskaraz behar den erraztasunarekin, ebakera zuzenarekin eta doinu egokiarekin irakurtzen irakasteko antolatzen dute, eta Kurtzebarriko Birigarruek taldeko ikasleek trebetasun berezia erakutsi dute jardueraren horretan. Ikasleek antzezlan bat grabatu zuten lehiaketarako. Horrekin batera, baita bi olerki eta bi irakurketa lan motz ere. Euskara batuan eta euskalkian. Bi sari banatzen dituzte lehiaketa horretan, bi bidaia, hain justu: bata, ikasleendako. /SAIOA OJANGUREN

ELKARRIZKETA

MARIXABEL ISASMENDI / ATZEGI ELKARTEKOA

“10.000 Atzegizale lortu nahi ditugu Gipuzkoan”

Debagoieneko Atzegi elkarteak, hau da, urritasun psikikoa dutenen eta haien senitartekoen elkarteak, urteko batzarra eta bazkaria egin zituzten joan den zapatuan Arrasaten.

Zelan joan ziren ospakizunak?

Primeran. Bazkarian jai giroa izan zen nagusi eta 170 bat lagun elkartu ginen. Aurretik, baina, Arrasateko Gureak lantegia bisitatu genuen. Eta gero, udaletxean hartu gintuzten udal ordezkariak eta batzartxo bat egin genuen, batez ere, Atzegi zer den eta urtea zelan joan den aditzera emateko. Esan beharra dago Xabier Zubizarreta Arrasateko alkatea eta Amaia Larrañaga Gizarte Ongizateko zinegotzia ere bazkarian egon zirela.

Kargua laga egingo duzula ere aditzera eman zenien han batutakoei, ezta?

Bai, hala da. 12 urtez jardundut Debagoieneko Atzegi elkarteko arduradun lanetan. Ibar honetan badugu batzorde bat eta batzorde horretan herri guztietako ordezkariak daude. Ni batzorde horren arduraduna izan naiz eta Atzegi elkartean Debagoieneko ordezkaria izan naiz azken urteotan. Orain, berriz, nire ordez Jokin Antxia ariko da.

Atzegi elkarteak beste karpaina bat abiatu du orain dela gutxi. Zer helbururekin?



Aizu, Mikel naiz aukeratu dugu lelotzat. Horrela, nor bere izaera eta sena badituela azpimarratu nahi dugu lelo horrekin, hau da, Atzegi ez dela elkarte huts bat, pertsonak osatzen duten elkarte bat baizik. Gizarte kontzientziatu nahi dugu.

Atzegizaleak ere bultzatu nahi dituzue, ezta?

Bai, hala da. Urritasun psikikoa dutenei eta haien senitartekoei laguntzeko prest dauden pertsonak nahi ditugu, hau da, Atzegizaleak behar ditugu. Geroago eta gehiago dira horretarako prest daudenak. Gure helburua da Gipuzkoan 10.000 Atzegizale lortzea.

Zenbat bazkide ditu Atzegi gure ibarrean?

165 bat familia. Joan den zapatuan, 65 bat elkartu ginen.



Jende gutxiago turismoaren azokan

Aurreko bi aldietan baino jende gutxiago hurreratu zen joan den asteburuan Oñatiko Zubikoa pilotalekura, Feritur azokara. Eguraldi bikainak ez zuen askorik lagundu, ezta Bergarako jaiek ere. Edozelan ere, antolatzaileak gustura geratu dira. Izan ere, bestetan baino jende gehiago hurreratu zen azokara gure ibarrekoak ez diren beste herri batzuetatik. Aurreko aldietan, Mondragoen eta Bergaran egindakoetan, 4.000 bat bisitari izan zituen Debagoieneko Turismo Azokak. Oraingoan, 1.000 bat izan dira. Hori dela eta, agian, datorren urtean Arrasaten antolatuko dute, lehen edizioan bezala. /E.A.

ARAMAIO Tellamendiko gurutzea dela-eta, Pegatina Lehiaketa antolatu du Udalak

Tellamendiko gurutzea berriro bere lekuan ipini eta inauguratu zuteneko urteurrena ospatzeko, ekitaldi berezia ari dira prestatzen Aramaion. Horren barruan, Udalak gai horrekin lotutako Pegatina Lehiaketa antolatu du. Izan ere, 1977an, gurutzea berriro ipini zutenean, oroitzapenerako pegatina atera zuten, eta orain ere gauza bera egin gura dute.

Lehiaketan parte hartu gura duenak ekainaren 21a baino lehen eraman beharko du marrazkia Udaletxera. Irabazleak 150 euro jasoko ditu. /U.M.

ANTZUOLA EHNA tramitatzeko hasiko da Udala datorren astelehenean

Maiatzeko osoko bilkuran aho batez onartu zuen udalbatzarrek Euskal Herriko Naziotasun Aitormena tramitatzea, Bai Euskal Herriari taldeak egindako proposamena onartuta. Orain, hori praktikara eramango dute, eta astelehenean aurrera eskatu ahal izango dugu EHNA udalerekin. Udalaren zeregina izango da herritarrei eskaera orriak eskaini eta Udalbiltzarekin bitartekari lanak egitea. Eta behin eskaera eginda, Udalbiltzatik aitormena eta txartela bidaliko dizkiete eskaerazaleei. /AINTZANE IRIZAR

ELGETA Hiru enpresatan eta masaje lokal baten sartu dira lapurrak oraingoan

Martitzen gauean, lapurren bisita izan genuen berriro ere. Pagatza Industrialdeko Iraunkor, Laibe eta Sisteco enpresetan eta Juan Mari Arantzetak masajeak ematen dituen lokalean sartu ziren.

Enpresetara fatxadetako kristalak apurtuta sartu ziren. Sistecon eta Iraunkorren ez zuten ezer eraman, dena nahastu arren. Laiben, aldiz, ordenagailuak eta kamera digitala falta dira. Masaje lokalera atzeko aldetik sartu ziren eta diru apur bat eraman zuten. /OXEL EROSTARBE



XABIER URZELAI

ARRASATE

Arrasatetik Bergararako bidean, Eroskitik gertu dagoen metalezko zubia kendu eta beste bat eraikitzen hasi dira oraingo astean

Arrasateko Udalaren aspaldiko nahia da Eroski inguruan dagoen Zabaletako zubia kentzea. Eta, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmenari esker, oraingo astean, metalezko zubia desmuntatzen hasi dira. Horren ordez beste bat eraikiko dute, baina berria errepidearen maila berean egingo dute eta ez, metalezko zubia moduan, errepidearen gainetik. Jendeari bidea erraztea da horren helburua, orain arte gora eta behera ibili behar izan dira-eta. Zubiaz gainera, baina, bestelako lanak ere egin behar dituzte Zabaleta alde horretan. Esaterako, oinezkoendako pasabidea hobetu egingo dute, Deba ibaiaren ubidea egokitu egingo dute eta han dauden lantegietara sartzeko bide egokia egingo dute, Eroskiko aparkalekuaren ondotik. /UBANE MADERA

OÑATI

Ekintzaile gazteei sariak eman dizkiete ETEOn enpresa proiektuengatik

Enpresa Zientzien Fakultateko Berrikuntza Teknologikoen eta Ekintzailetasunaren Zentroak (CITEM) bigarren aldiz antolatu du aurten Ekintzaile Gazteendako Lehiaketa.

Fakultateko ikasleei zuzendutako lehiaketa da, bai azkeneko ikasturteko ikasleei bai eta graduatu ondokoei ere.

Hogeita hamasei proiektu aurkeztu dituzte lehiaketara. Horietatik, sei proiektu iritsi ziren finalera, eta guztiek jaso zuten sariren bat. Esan bezala, eguen arratsaldean egin zuten sari banaketa. Erre-dakzioa ixteko orduan, baina, ez genuen oraindik saridunen berririk.

Epaimahaia inguruko hainbat enpresatoko eta erakundetako ordezkariak osatu dute: Saiolan, Fagor, Euskadiko Kutxa, LKS eta Gipuzkoako Diputazioa.

Lehiaketa horren helburua da ikasleen artean inizatiba, ekimen berriei heltzeko motibazioa eta

kreatibitatea bultzatzea. Aipatzekoa da, gainera, iaz lehiaketa horretara aurkeztutako sei bat proiektu praktikara eraman dituztela edo, behintzat, praktikara eramateko bidean daudela.

KIROLDEGIKO KUOTAK

Urtero moduan, uztailean ordaindu beharko dute Zubikoa kiroldegiko bazkideek kuota. Oraingoan, baina, uztailetik abendura artekoa kobratuko diete, abonua urte naturalera egokitu nahi dituztelako. Gero, urtarrilean, urte osoko kuota ordaindu beharko dute. /AINTZANE IRIZAR

Zertzelada

Hogeita hamasei proiektu aurkeztu dituzte lehiaketara; horietatik, sei iritsi ziren finalera. Eguen arratsaldean egin zuten sari banaketa ekitaldia.

BERGARA

Torunsa lantegian ELAko ordezkariari jarritako zigorra salatu dute

Torunsako zuzendaritzak lantegiko ELAko ordezkariari jarritako zigorra salatzeko, enpresa aurrean batu ziren hainbat lagun atzo eguerdian. Apirilaren 17an, lantegian praktikak egiten ari diren ikasleendako segurtasun botak eskatu zituen ordezkariak; eta apirilaren 18an, "makina sei minutu utzi izana-

gatik zigortu egin zuen enpresak", ELAko arduradunen esanetan.

Iturri berek diotenez, "Torunsa beti izan da enpresa gatazkatsua, eta argi utzi dute segurtasuna bermatzea ez dela zuzendaritzaren lehentasunetako bat". Eta ordezkariari ez diotenez zigorra kendu, epaitegira jo dute. /M.B.



MONIKA BELASTEGI

ELAko ordezkariak enpresa aurrean egin zuten elkarretaratzea.

ARETXABAETA Euskararen aldeko giza-katea egingo dute zapatuan herriko plazan

Zapatuan ospatuko den Euskararen Eguna aprobetxatuta, Aretxabaletako Euskal Herrian Euskaraz taldeak eta Loramendi Euskara Elkartek giza-katea egingo dute. Helburua da euskararen ofizialtasuna aldarrikatzea eta, bide batez, egunero gure hizkuntzak jasaten dituen erasoak salatzea.

Giza-katea zapatuan egingo dute, 18:30ean, herriko plazan. EHEk badaki egun bakarrean ez direla arazoak konpontzen; hala ere, herritar guztiak animatu gura ditu ekitaldian parte hartzea. /A.L.

ESKORIATZA

Umeen danborrada gertatzeko jenderik ez badago, bertan behera utziko dute

Urteak daramatzate Eskoriatzan San Pedro jaietan umeen danborrada egiten, baina aurten jendea falta da antolaketa lanetan laguntzeko. Martitzenean, batzarra egin zuten horren gainean berba egiteko, eta zortzi lagun elkartu ziren. Danborrada behar den moduan prestatzeko, ordea, hamabost bat lagun behar dira. Hori dela eta, bertan behera uztekoan egon ziren, baina azken saiakera bat egitea erabaki zuten. Hurrengo batzarra martitzenean, hilaren 28an, egingo dute, 18:00etan, kultura etxean. /M.A.

LEINTZ GATZAGA Herriko hainbat erretiratu Lizarra aldean egon ziren aurreko astean

Joan den astean, herriko 22 erretiratu Lizarra aldera joan ziren egun-pasa.

Lehenengo geldialdia Los Arcosen egin zuten. Han, iaz inauguratutako upategi bat bisitatu zuten. "Bizkai aldeko beste bi taldeekin elkartu ginen eta eguna elkarrekin pasatu genuen", esan digu Maritxu Plazaolak. Gero, Lizarran, denbora librean izan zuten. Azoka bisitatu ondoren, Iratzen bazkaldu zuten denek elkarrekin. Bazkaldu eta gero, opariak jaso eta dantza egiteko aukera ere izan zuten. /A.G.

Zabalik

MARTIN
JAUREGI ALTZO

Kultura

Egun hauetan hainbat bider hitz hori idatzi ondoren, berarekin zerbait arraroa gertatzen zaidala konturatu naiz. Hasieran, nekearen kontua zela pentsatuz, ez nion bestelako garrantzirik eman, baina astearte arratsalde eguzkitsu batean, bigarren aldiz hitza idatzi nuenean, bi izerdi tanta hotz leunki irristatu ziren nire bekokitik, sudurreraino heldu eta zalantza une baten ondoren, tantak hitzaren gainera erori ziren. Paper zurian hitz hori besterik ez zegoen idatzita, bera nahikoa izango balitz erreala eta irudimenezkoa dena adierazteko: unibertsoak, oihan barreneko ipuinak, giza oroimena, Rif-eko abestiak, iparraldeko itsasertzean bizi diren herrien ohiturak, guda handiak eta inoiz gauzatzen ez diren bake garaiak; den-dena zazpi hizki madarikatu horietan gordeirik, urrezko zorroan ezkutaturik.

Astearte arratsalde eguzkitsu horretan, hitzak bere sena galdu zuen, hatsa kiratsa bihurtuz. Arratsalde anonimo horretan kultura hitzak bereak egin zuen. Jadanik ez zuen ekimenik mundua dastatzeko, herritarrekin dantza egiteko, barre algarak ahaztuz neguko jauregi zaharretako ateen ostean babestu zen. Bat egin zuen txanpon hotsarekin eta honek baldintzatzen zuen bere ibilbide alderraia.

Larunbat goiz batean, artelanez inguraturik, barre egiten dut eta ez da ezintasunak eragindako barre eroa, baizik eta irri alaisu itxaropentsua. Dena galduta ez dagoela jakiteak eragiten didana. Hainbat gaztek beraien ekimen eta jakingurarekin marrazten dute, egunero, nire irri berri hau. Egunero ezinaren gailurra gainditu eta atzamarrekin, irudimenezko hizkiak erabiliz, kultura izendatzeko hitz berri baten bila dihardutelako.

Gutunak

Aretxabaletako kultura-areto berria

Denok ohartuko zineten azken boladan Aretxabaletan kultura-ekintza gutxi antolatzen direla. Egiten direnak, gainera, ez dira batere azpiegitura egokietan antolatzen.

Zorionez, heldu da azkenean Aretxabaletako herriak beharrezko duen eta merezi duen proiektu duina. Izan ere, joan den astean, Udalak Otalora 27an (Kuartel zaharrean) egiteko asmoa duen areto multifuntzionalaren proiektua aurkeztu zigun kultura-taldeoi. Proiektua gure herriaren neurrikoa dela deritzogu eta momentu honetan dauden hutsune nahiz gabeziei erantzuna emango diena, halaber.

Hala eta guztiz ere, egun ditugun baliabideak ahalik eta gehien ustiatzen saiatzen gara. Musika arloan, esaterako, bai musika eskolak, abesbatzak baita akordeoi orkestrak ere, beren lana herrian ezagutarazteko gune eta aukerak oso eskasak dira. Beraz, gure lanak Aretxabaletan bertan baino kanpoan ezagunagoak dira.

Herriko lanez gain, amateur edota profesional mailako ekintzak, antzerkiak, kontzertu txikiak, hitzaldiak... ekartzeko mugak ditugu baldintza minimo batzuetan ekarri behar izaten direlako. Zenbait ekitaldi elizan ere antolatu izan dugu, hala nola: zartzuelak, abesbatzak..., baina elizak ere ekintza hauek neurri batean zentsuratu egiten ditu. Hori dela eta, aspaldian ezer gutxi antolatu dugu maila honetan. Eta, horretaz aparte, ez dela leku egokiena pentsatzen dugu.

Dantza arloan ere ezin ditugu gura beste emanaldi eman. Azkenaldian, kalean antolatu diren arren, eguraldia izaten da horrelakoetan agintzen duena. Beraz, horrelakoetan behartuta aurkitzen gara badaezpada bi lekutan —kalean eta aterpean— prestatzera eta honek gastuak bikoiztera garamatza.

Gauzak horrela, herriak dituen kultura-azpiegiturak oso murriztak dira. Hortaz, Aretxabaletako kultura-taldeon izenean politikari guztiei eskatzen diegun arren, behingoz hasi ditzatela areto berriko lanak!

ARETXABALETAKO KULTURA-TALDEAK
Aretxabaleta

Geyser-eko langileei

Bergarako Geyser-Gastech S.A. lantegi-ko enpresa-itunaren aldeko negoziazio eta mobilizazioen ostean, maiatzaren 13an zirriborroa eman ziguten. Hasieratik, negoziazio aldiaren amaierako itunean, gure plataformaren lehen puntuan, funtsezko hizpide edo esparru pertsonaltzat, honako hau genion: "Itunak, 2002ko urtarrilaren 1ean, Geyser Gastech S.A.n ari diren langile ororen eragin, zein ABLEn bidez kontrata daitezkeen langileengan".

Aurkeztu diguten zirriborroan, baina, aipatutako atal hau ez da agertzen.

Nominak berraztertuz, bestalde, ikusi dugu behin-behineko langileei (hasierako maila) ez dietela ordaindu gabezia borondatezko plusa, ezta jarduera borondatezko plusa. Negoziazioaren aurretik, enpresak emandako soldata taulen arabera (2002-01-22), 0,0694 eta 0,0722 hurrenez hurren. Taula berriek (2002-04-22) ez dituzte hasiera mailakoendako plusak jasotzen.

ESKrentzat, funtsezko irizpidea edo esparru pertsonala ez sartzeak behin-behinekoen diskriminazioa dakar.

Badira negoziazio aldiaren amaierako beste puntu batzuk azaltzen ez direnak, beraz, ESK-ko delegatuok ez dugu enpresa ituna sinatuko jakin arte zertan diren puntu horiek, eta enpresa batzordea deituko dugu zirriborroaren azterketa sakona egin dezan.

ESK
Bergara

Afarirako gonbita egindda jaok!

Horrelakoetan inpotentzia sentitzen da. Horixe izan daiteke barbarik egokiena gure sentimenduak adierazteko, baina beste mila daude gure lagun honi gertatzen ari zaiona definitzeko. Ez genuke gura, dena den, euskaldun guztiok argi eta garbi ikusten duguna azaltzen jendea asperetzea.

Denontzako dago argi gertatzen ari zaionak ez duela ez buru eta ez hankarik; izan ere, jakin badakigu bere lana egiten ziharduera kamera bat eskuan zuenean, urtetan egin izan duen lana, borondate oneko lana, jende gutxi eskertu arren horren beharrezkoa den lana.

Jon Abril, zerbait izatekotan, euskaldunon alde lanean buru-belarri dabilen laguna dugu. Guk badakigu horrela dela eta lau haizetara horixe adierazi gura dugu.

Luze joko luke bera zer den eta zer ez esaten hasiko bagina, baina ezerekin aurretik badakigu gizarte honekin pertsona konprometitua dela, hizkuntzaren alde bereak eta bi egin dituela, kultura izan duela goiburua egin dituen pauso guztietan eta borondaterik ez zaiola falta edozertan laguntzeko.

Beti egin du lan gure izatearen alde eta seguru gaude oraindik ere urte askoan egingo duela. Horrelako nafarrak eta euskaldunak behar ditugu gure artean eta horregatik lanean ikusiko dugu, egun bat bera ere galdu barik. Ekainaren 11koa oztopotxo bat baino ez dok.

Joni, ez haiz libratuko egiten diharduan lanetik. A! Eta aurtengo Elgetako jaixak ttukunak jatozak eta aurtenguetatik 2040. urtera arteko jaixetan elkarrekin egingo juau juergan. Urtero afalduko juau kua-drillan, egon seguru.

IBAN ARANTZABAL ETA KOADRILAKOAK
Elgeta

Olatz eta Patri

MIKEL ARROIABE



Goienkaria
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkorobereibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

SAILETAKO ARDURADUNAK
Goio Arana (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga,
Natali Martinez, Izaskun Bolinaga,
Ziortza Martin, Imanol Elortza

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Julen Aranguren

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

Jose Antonio Azpiazu (Legazpi, 1944), Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Unibertsitateko argitalpenen arduraduna da. Hainbat liburu eta artikulua argitaratu ditu, aro modernoko lehen mendeetako historiaren eta euskaldunen bizimoduaren gainekoak. Oraintsu argitaratu duen liburuan, *Picas vascas en Flandes* izenekoan, XVI. mendean Debarroan armen industriak izan zuen garrantzia du aztergai.

ENEKO AZKARATE

Beti pentsatu izan dugu Eibar eta Soraluze izan direla Euskal Herriko armagintzaren sorleku. Zure liburuan, oster, Debagoieneko armagintzaren gainean diharduzu.

Batez ere, Eibarren, gaur egun ere, armagintzak indar handia dauka. Baina XV, XVI eta XVII. mendeetan, Eibarren eta Soraluzen ez ezik, Deba arro osoan ere, hau da, Elgoibarren, Arrasaten, Bergaran, Oñatin... garrantzi handia zuen armagintzak. Baita gure ibar inguruko herrietan ere, Elorrioren, Durangon edo Munitibarren, esate baterako. Munitibarren kasuak eta gorputza babesteko petoak egiten zituzten. Izan ere, industria horien gutxienez artean kooperatiba moduko bat osatzen zuten.

Hainbat herritako enpresen artean, hortaz, harreman handia zegoen...

Bai, bai, bai. Azken helburua salmenta zuten guztiek ere. Gauza bat da baserri baten edo herri baten armak egitea eta beste kontu bat da arma horiek saltzea. Saltzen ez bada, ez du ezertarako balio. Sarri esan ohi da euskaldunak saltzaile txarrak garela. Hori gezur handia da. Beharbada, azken mendeetan ahaztu egin zaigu, baina hori ekonomiaren gainbeherarengatik izan dela esango nuke. Garai hartan, oso saltzaile onak eta zorrotzak ziren euskaldunak. Merkatariek ziren armagintzaren ardatza. Ez dut esan nahi artisauek eta baserrietarrek inportantzia txikia zutenik, baina orduko merkatariek gaur egungo bankariak edo finantzariak bezalakoak ziren. Merkatariek egiten zituzten herri guztietako armagintzaren lotura lanak. Azpiegitura sendoa zegoen hemen.

Eta horretaz jabetu ziren Errege Katolikoak, Karlos V.a eta Felipe II.a?

Bai. Erregearen begiraleak, Escalante eta horiek, hona etorri ziren, hemengo armagintza-azpiegitura aprobetxatzera. "Hau da gure mahatsa eta hemengo armagintza erabiliko dugu, gure inperio handiaren gudarostea hornitzeko", esaten zuten.

Kooperatibak aipatu dituzu, baina beti pentsatu izan dugu kooperatiben mugimendua On Jose Maria Arizmendiarrarekin sortu zela hemen...

Bueno, bai, hori horrela da. Baina Garibairen denborako Mondragoeko altzairuaren gainean idatzitako liburuan azaltzen nuen moduan, XVI. mendean, Arrasatek pisu handiagoa zuen munduan gaur egun Arrasatek eta horren inguruko kooperatiben mugimenduak duena baino. Garai hartan, Euskal Herrian egindako armek munduko inperiorik handien gudarosteak hornitzen zituzten.



LEIRE KORTABARRIA

Jose Antonio Azpiazu

HISTORIALARIA ETA ANTROPOLOGOA

“Toledoko ezpata famatuak hemen egiten zituzten XVI. mendean, eta hemengo burdinarekin”

SALTZAILE ONAK

“Sarri esan ohi da euskaldunak saltzaile txarrak garela. Hori gezur handia da. Garai hartan, oso saltzaile onak eta zorrotzak ziren euskaldunak”

MUNDUAN EZAGUNAK

“XVI. mendean, Arrasatek pisu handiagoa zuen munduan gaur egun Arrasatek eta horren inguruko kooperatiben mugimenduak duena baino”

Euskaldunok Espainiako monarkia eusten lagundu genuela diozu?

Sasoi baten, euskal armagintzaren bezerorik garrantzitsua Espainiako monarkia zen, hori horrela da. Erosi nahi zuenari saltzen zioten.

Zelako armak egiten zituzten hemen?

Mintegiak zituzten baserri inguruetan. Esate baterako, bost metroko hagak egiteko, lizarra erabiltzen zuten; kaxak edo kulatak egiteko, oster, intxaurrondoa, baita pagoa eta sagarrondoa ere. Gero, giltzak

edo ezpatak egiteko, altzairua erabiltzen zuten. Ez dugu pentsatu behar Toledoko ezpata famatuak Toledon egiten zituztenik. Toledon ez zegoen burdinarik ezta altzairurik ere. Hemendik, Arrasatek, eramandako ezpatak ziren Toledokoak.

Zergatik desagertu zen hemengo armagintza?

Desagertu, desagertu, ez zen desagertu. Bai, egia da orduko indarrak ez daukala gaur egun. Izan ere, orduan, munduko armarik gehienak hemen egiten zituzten. Gaur egun,

berriz, enpresa gutxi batzuk geratzen dira, Eibarren-eta, batez ere. Inperioa indarra galduz joan zen neurrian, hemengo armagintza ere krisian sartu zen.

Zertan eraldatu zen armagintza?

Burdingintza oso garrantzitsua izan da hemen. Eta Arrasaten, burdin berezia, hau da, altzairua, batez ere. Hortaz, armak saltzen ez bazituzten, gurpil-hagunak, iltzeak, baserrietarako tresneria... egiten zituzten.

Sarrailagintzak ere orduan hartu zuen indarra?

Gaur egun, giltzak aipatzen ditugunean, ateko giltzen gainean ari gara. Baina orduan, suzko armen giltzak egiten zituzten, batik bat. Horregatik, oso lotuta egon dira beti armagintza eta sarrailagintza. Gutxienez, XVI. mendean, armendako piezarik gaitzenak sarrailagileek egiten zituzten hemen.

Euskal Herri osoan zehar zuen garrantzia armagintzak ala inguru hauetan bakarrik?

Nafarroan (Lesakan kasu), Tolosan, Ordizian, Donostian... ere armak egiten zituzten, baina ez hemen beste. Ez da kasualitatea Erregeak bere ordezkaria Soraluzera bidali izana.

Austriarren garaian Euskal Herriko armagintzak izan zuen garrantzia historialariek ahaztu izana kritikatzeko duzu liburuan. Zergatik?

Hemengo armagintza ez da behar bezala aztertu eta ikertu. Euskal Herriko historia egiteko dago oraindik. Ia ez dugu ikerlaririk, unibertsitatea gaztea da... Orain ari gara gure historia berreskuratzen edo aztertzen. Dokumentazioa hor dago. Zer egin behar den? Ikertu. Gure historia mar-dula da eta ikertzeko dago oraindik.

Zuk zeuk, behinik behin, horretan diharduzu...

Bai, XVI. mendean daukat burua.

Ikerketak egiteko iturriak non aurkitzen dituzu?

Hemen, Oñatiko Soziologia Unibertsitatek gertu, daude Euskal Herriko protokoloak, hau da, negozioen dokumentu notarialak. Udaletxeetan ere informazio handia dago: Arrasaten, Bergaran, Legazpin, Oñatin, Tolosan...

Erabiltzen duzun estilo zuzen eta ari-nagatik, irakurtzera animatzen duten liburuak dira zureak, historiakoak izan arren.

Esaten dute abilezia daukadala jende arruntarendako gauzak egiten. Ahalegintzen naiz gauzak erraz egiten. Ikerketa lanak dokumentazioan sustatuta badaude, ez dago arazorik estilo arina erabiltzeko.

Orain, esku artean daukazu Juan Zubia oñatiarrak jasotako lanen gaineko liburuak. Noizko hori?

Nire lan arlotik kanpo dago hori, XX. mendeko historia lana da-eta. Hemengo zale batek, Juan Zubiak, hainbat koaderno eta argazki batu zituen bizitzan zehar. Hil ondoren, Udalak lan horiek eskuratu zituztean, argitaratzeko konpromisoa hartu zuen. Ez da niri gehien gustatzen zaidan historia, baina hori ere gure historia da, Oñatiko hainbat bitxikeria eta xebebrekia jasotzen dira-eta. Aurtengo San Migeletarako argitaratu nahi dugu.

Kantauriko baleontzien gainean jarduten zenuen azkenurreko liburuan. Debagoiendarrak bazen XVI. mendeko baleontzietan?

Harritu egingo ginatke, ez bakarrik Kantaurin baizik eta baita Ternuan ere, oñatiarrak, arrasatearrak eta bergararrak baleontzien negozioetan sartuta zaudela jakingo bagenu. Hemengo merkatariek eta, kasu batzuetan, baita marinelak ere, itsasoko abentura interesgarrietan sartuta zeuden sasoi hartan: Okariztarrrak, Santa Mariatarrrak, Igartzatarrrak... Garai hartako euskaldunak eta debagoiendarrak oso kanpora begira zebiltzan.



AMAGOIA LASAGABASTER

Ehunka aretxabaletar eta baita kanpotik etorritako beste hainbat eta hainbat lagun, elkartu ziren Aretxabaletan atzo, Albertori eta honen espedizioko kideei ongi etorria emateko.

Ongi etorri eta zorionak, Alberto!

Aretxabaletako herriak omenaldi hunkigarria eskaini zien atzo Alberto Iñurrategiri eta espedizioko beste kideei

Alberto Iñurrategik eta "Oinak izarretan" espedizioko beste hiru taldekideak, hau da, Jon Lazkanok, Jon Belokik eta Juanjo San Sebastianek, omenaldi beroa jaso zuten atzo, egue-na, iluntzean, Aretxabaletan.

Ehunka lagun elkartu ziren udaletxe aurrean Albertori eta

espediziokideei ongi etorria emateko. Ekitaldian, Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariak, herriko dantzari eta txistulariek, Aretxabaletako eskoletako neska-mutikoeak, herriko elkarreetako ordezkariak... hartu zuten parte, beste batzuen artean. Zazpi eta erdiak jota heldu

ziren lau mendizaleak Durana kaletik udaletxe aurrera, txistulari eta dantzariak lagunduta. Ordurako, jendez gainezka zeuden kaleak.

Gorka Etxabe kazetariak aurkeztu zuen ekitaldia eta Alberto Iñurrategiren hamalau zortzimilakoak zerrendatu zituen

banan-banan. Omenduendako lehen hitzak, baina, Anjel Bergaretxe alkatearenak izan ziren, ohorezko aurrekuaren ostean. Pako Iriondok ere egin zuen berrak. Bai Anjelek eta baita Pakok lau mendizaleen eta, bereziki, Albertoren, eta baita Felixen lana goraiatu zuten. Bestalde, lau

omenduek lore sorta eta opari bana jaso zituzten dantzarien eta herriko eskoletako haurren eskutik. Amaieran, Alberto Iñurrategik eskerrak eman zizkien herri-tar guztiei une guztietan ondoan egoteagatik.

GOIENKARIA



ARGAZKI PRESS

LOIUKO AIREPORTUAN. 15:00ak aldera iritsi ziren Euskal Herrira "Oinak izarretan" espedizioko kideak. Irudian, Jon Lazkano, Juanjo San Sebastian, Alberto Iñurrategi eta Jon Beloki mendizaleak. Senitarteko eta lagunez gain, komunikabide ugari izan ziren ongi etorrian. Azken asteotan Euskal Herritik kanpo izan ondoren, etxera bueltatzeko irrikaz ziren mendizaleak.



ARGAZKI PRESS

NESKA LAGUNAREKIN. Argazkian, Alberto Iñurrategi eta Ane Lasagabaster. Une hunkigarriak bizi izan ziren atzo Loiu mendizaleei eginiko ongi etorrian. Gerardo eta Rosario, Albertoren gurasoak eta Agurtzane arreba ere han izan ziren eta, horrez gain, hainbat lagun. Besteak beste, Maider Zabalegi trikitilaria (Jon Belokiren neska laguna), Sebastian Lizaso bertsolaria edo Jose Ramon Zubizarreta.



AMAGOIA LASAGABASTER

HUNKIGARRIA. Aretxabaletako herriak iluntzean eskainitako ongi etorrian, bai une gozoetan eta batez ere gazietan, herritarrak ondoan eduki izana eskertu zuen Alberto Iñurrategik. Hunkituta agertu zen Alberto eta baita espediziokideak ere. Ekitaldian, dantzariak, txistulariak, herriko eskola eta elkarreetako kideak, Anjel Bergaretxe alkateak eta Pako Iriondok hartu zuten parte.

ESTATISTIKAK Zortzimilakoak egin dituztenetik, gazteena

Alberto Inurrategi munduko hamalau zortzimilakoak egiten hamargarrena izan da, bigarren euskalduna -Juanito Oartzabal arabarraren ondoren- eta talde horretatik gazteena: 33 urte eta 194 egun ditu. Carlos Carsolio mexikarrak marka bera egin zuenean baino 26 egun gazteagoa da Alberto.

ERRONKAK Annapurna bide zailenetik egin du

Alberto Inurrategik, eta bere anaia Felix zenak ere, euren estilo propioa izan dute igoera guztietan, eta beti erronka berriren bati eusten saiatu izan dira. Oraingoan, Albertok marka garrantzitsu bat



hautsi du, izan ere, Annapurna aurpegi zailenetik igo du, ekialdeko aurpegitik. Hori egiten bigarrena izan da, 1984an Loretan eta Joss suitzarrek bide hori lehenengoz urratu zutenetik. Jaitsiera ere aurpegi horretatik egin zuten Alberto Inurrategik eta Jean Christophe Lafaille frantziarrak.

ZAILTASUNAK Sekula egindako igoerarik gogorra

Goizeko seiak inguru ziren Euskal Herrian, hamarrak Nepalen, Albertok "Tontorra,



tontorra!" hitzak walkie-talkie zituenean. Ordubete pasa zuten aretxabaletarrak eta Lafaille lagunak Annapurnaren tontorrean. Gerora, biek esan zuten sekula egindako igoerarik gogorra izan zela, baina baita azkarrena ere.

KEMENA Bide berriak urratzen saiatu izan ziren

Datu interesgarriak utzi dizkigu Inurrategitarren igoera bakoitzak. Adibidez, 1992an, Everestera oxigenorik gabeko lehen euskal igoera egin zuten. 1995ean, Lhotseko gailurra zapaltzen lehen euskaldunak izan ziren. Markak hausteko kemena ere ez zuten faltan izan: Broad Peak-en bide berria zabaltzen saiatu ziren, eta Manaslu negu gordinean konkistatzeko ahalegina ere egin zuten.

GIZATASUNA Zoritxarraren aurrean, besteei laguntzea

Guztiok dugu gogoan zelan Felix Gasherbrum-en geratu zen betiko; baina aurretik ere, mendizaletasunaren aurpegi iluna ikusi behar izan zuten biek. Baina, beti ere, gizatasuna erakutsi zuten: Juanito Oartzabalek gogoratzen du zelan, Shisha Pangman jasandako elurroldean, lagun bizi iraupena euren aurretik ipini zuten anaiek. Nanga Parbat-en, zauritutako mendizale bati jaisten lagundu zioten.

ALBERTO INURRATEGI / MENDIZALEA

"Talde-lana sekula baino garrantzitsuagoa izan da"

Annapurnako gailurra (8.091 metro) zapaltzean, Alberto Inurrategi munduan diren hamalau zortzimilakoak egiten dituen hamargarren gizona dugu. 33 urterekin, Alberto da marka hori hautsi duen eskalatzailerik gazteena. Etxekoek eta lagunak harrera beroa eskaini zioten atzo Loiu-ko aireportuan. Han elkarrizketatu genuen Alberto.

Lehenbizi, zorionak, Alberto. Benetan harrera hunkigarria prestatu dizute.

Bai, familiakoak eta lagunak ikustea eta Euskal Herrira bueltatzea beti izaten da pozgarria. Dena dela, ez genuen espero horrenbeste kazetari eta argazkilarik gure zain egotea, eta hasiera baten gogor samarra egiten da. Izango dugu lortutakoaz lasaia gozatzeko aukera.

Irakurri izan dugunez, Annapurnako igoera zure bizitzako gaitzenetakoa izan da.

Bai, igoera oso exijentea gertatu zen, ezohiko bide batetik, ekialdeko ertzetik jo genuelako gailurrera. Zorionez, gauzak biribil atera zitzaizkigun. Zortea ere gure alde izan genuen eta gailurra zapaltzea oso momentu berezia izan zen.

Jean Christophe Lafaille izan zenuen kordadako lagun eta primeran moldatu ei zineten elkarrekin.

Kordadako laguna Lafaille izan arren, Belokik eta Lazkanok egin zuten lan astunena. Talde-lana sekula baino garrantzitsuagoa izan da espedizio honetan: soka metro pila bat sartu behar izan dugu eta oso ondo moldatu gara, giro berezia egon da. Azkenean, Lafaillek eta biok izan genuen gora egiteko



ARGAZKI PRESS

"Etapa bat bukatu da, baina oraindik mendian jarraitzeko ilusioz eta gogoz nago"

aukera eta bion arteko elkar ulertzea primerakoa izan zen. Eskalatzaile bikaina da Lafaille. Baina meritua ez da gu biona bakarrik, azken baten atzean jende pilo bat izaten delako.

Duela hamaika urte Felix anaiarekin batera hasitako etapa bati amaiera eman diozu. Orain, zer?

"Felix egunero buruan izaten badut, horrelako egoeretan are eta presenteago dago"

Etapa bat bukatu da, baina jarraitzeko ilusioz eta gogoz nago. Oraindik nire burua motibatzen gaude gauza naiz eta nire bizitza mendiari lotuta ikusten dut.

Guztiok akordatu izan gara Felixekin egunotan.

Felix egunero buruan izaten badut, horrelako egoeretan are eta presenteago egoten da.



ROSARIO IRIARTE
ALBERTOREN AMA

Zer sentitu zenuen gailurra zapaldu zuenean?

Sekulako poztasuna eta lasaitu ederra hartu genuen Annapurnara igozteko lortu zuela jakin genuenean. Joan den eguean, goizeko zortzietan eman ziguten berria. Zapatuan egin nuen berba Albertorekin; gustura, baina nekatuta zegoen.



PAKO IRIONDO
MENDI FEDERAZIOKO
OHOREZKO PRESIDENTEA

Gogoan duzu Albertoren gaineko bitxikeriarik?

Akordatzen naiz, Felix eta Alberto gazte-gazteak zirela, Annapurnara igozteko baimena lortzen ea lagunduko nien eskatu zidatela. Amaren baime nik bazuten galdetu nien... Gero, Annapurna oso gaitza zela-eta, Pumorirako baimena eskatu genuen.



JOSE R. ZUBIZARRETA
ALBERTOREN LAGUNA

Zelan gogoratzen dituzu gazte denborak?

Proiektuz betetako urteak ziren, "egin bihar jaui eta egingo jaui" zen gure gazte denboren laburpena esaldi baten. Orain, teknologiak asko laguntzen du eta jarraipen zehatza egin dugu. Egunero ez bada ere, astean bi aldiz egon gara Albertorekin.



XABIER BASABE
MURRUKIXOKO PRESIDENTEA

Alberto eredu da?


Euskal Herriko edozein gazterendako da eredu, haren izena, Aretxabaletaz gain, mundu osoan ezaguna delako. Eredu da, batez ere, oso modu apalean eta baliabide apurrekin hasi zirelako espedizioak antolatzen. Orain, munduan goi mendizaleen erreferentzia ere bada.



ANJEL BERGARETXE
ARETXABALETAKO ALKATEA

Euskaldunik ospetsuenetakoa aretxabaletarra izatea ohorea da?

Bai, gaur egun bai, beste sasoi baten Andoni Zubizarreta edo Sarasua anaiak izan ziren moduan. Kontuan hartzen badugu munduan 10 bakarrik direla hamalau zortzimilakoak egin dituztenak eta bat aretxabaletarra dela...



JON LAZKANO
ESPEDIZIOKO KIDEA

Albertoren azken zortzimilakoa izatean, presioa handiagoa izan da?

Espedizioak ikusmin handia sortu duela jabetu gara, eta izan duen emozionalderdia ere ezin daiteke alde batera utzi. Betiko moduan, gure lana ahalik eta ondoen egiten ahalegindu gara, eta oso ondo moldatu gara elkarrekin.

Asier Atxa, Gipuzkoako txapeldun

Olarra-Consultec taldeko txirrindulari aretxabaletarrak Mendekoste saria irabazi zuen

Asier Atxa Olarra-Consultec taldeko txirrindulari aretxabaletarrak 23 urtetik azpikoendako txapelketa irabazi zuen domekan Bergaran. Mendekoste sariaren 62. ekitaldian, Asier berarekin ihesaldian zihoazen bost txirrindulariri nagusitu zitzaizen helmugan.

Gipuzkoako txapelketa esprintean erabaki zen eta Asier Atxa izan genuen azkarrena San Lorentzoko helmugan. Bere atzetik, Joseba Agirrezabala (Bideki), Joseba Albizu (Baque), Angel Vázquez (Caja Rural), Xabat Otxotorena (Ulma Cegasa) eta Markel Irizar oñatiarra, Asierren taldekidea, sailkatu ziren. Laurogei txirrindularik hartu zuten parte eta ibilbidea 127 kilometrokoa izan zen. Atxak, batez beste, 40,6 kilometro orduko abiadura markatu zuen helmugan.

LAUGARREN URTEA AMATEUR MAILAN

Asier Atxak 22 urte dauzka eta aurtengoa amateur mailan egiten duen laugarren denboraldia da. Ulma-Cegasan bi urtez aritu ondoren, azken bi urteotan Olarra tal-



Asier Atxak esprintean lortu zuen garaipena domekan Bergaran jokaturako Pentekoste sarian.

JUAN LUIS JUAREZ

dearekin dabil. Aurreko denboraldian Lezoko lasterketa irabazi zuen. Aurten, berriz, lehen garaipena lortu zuen Bergaran,

baina Arabako eta Bidasoako itzulietan maila ona azaldu zuen. Zapatuan nazioarte mailako Txuma Memorialean izango da, Eran-

dion, eta martitzenetik aurrera, Nafarroako Itzulian.

EDU MENDIBIL

Kirolabur

MOTORRA/GORLA

Bihar, zapatua, Gorlako Auto Igoeraren XII. ekitaldia jokatu da. Entrenamenduak 16:00etan hasiko dira. Lehen txanda 17:15ean jokatu da, eta bigarrena, 18:30etik aurrera. 57 gidari izango dira lehian; tartean, Aitor Zabaleta bergararra (Lola Telefónica) eta Aitor Ramírez oñatiarra (BMW3 20 ST).

ESKUBALOA/OÑATI

Aloña Mendiko eskubaloi nesken kadete taldeak ekainaren 8tik 14ra bitartean Kanarietan jokatu den Espainiako txapelketarako txartela lortu zuen Totanan, Murtzian. Iñaki Canterok zuzentzen duen taldeak Estatu-ko beste zazpi taldeekin borrokatu beharko du Las Palmasen, ekainean.

FUTBOLA/BERGARA


Bergara KEren 50. urteurreneko ospakizunen barruan, mahai-ingurua izango da bihar, zapatua, Udaletxean, 19:30ean. *Gaztelu*, Jesus Irizar *Pardina* eta Jesus Ibáñez jokalaririk ohiak, Agustin Arantzabal Realeko jokalaria eta Julen Masach Realeko prestatzaile fisikoa izango dira hizlariak eta Iñaki De Mujika moderatzaile lanetan arituko da.

Debagoieneko Kirol Zerbitzuen berriak

Debagoieneko Kirol Jaiak ospatuko dituzte ekaineko lehen astean

Hona hemen Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatu dituen kirol jaien eskaintza.

Jarduera horien helburua da Debagoieneko herritarrei (umeei, edadetuei eta ezgaituei, bereziki) kirolaren inguruan festa egun alai bat eskaintzea.



Eskolarteko XIII. Olinpiada

Non: Aretxabaletan.

Noiz: 2002ko ekainaren 1ean (larunbata).

Ordua: 10:00-13:00.

Norendako: LHko 5. eta 6. mailako neska-mutil guztiei zuzenduta.

Edadetuen XI. Kirol Jaia

Non: Antzuolan.

Noiz: 2002ko ekainaren 7an (ostirala).

Ordua: 15:00-19:00.

Norendako: Debagoieneko edadetu kirolzale guztiei zuzenduta.

Denondako X. Kirol Jaia

Non: Arrasaten.

Noiz: 2002ko ekainaren 8an (larunbata).

Ordua: 10:00-13:00.

Norendako: Debagoieneko ezgaitu fisiko eta psikiko guztiei eta euren laguntzaileei zuzenduta.

Informazio gehiagorako edota izen emateko zuzendu Debagoieneko kirol zerbitzuetara :Antzuolan 943 76 6 2 46, Aretxabaletan 943 71 26 28, Arrasaten 943 77 16 77, Bergaran 943 77 91 67, Elgetan 943 76 80 22, Oñatin 943 71 63 75.

BABESLEA



VENTANAS
SAN MIGUEL

Iturriotz, 24 • 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 78 10

Ibargarai, 4 • 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 12 21



Hezkuntza Eskaintza

Zure etorkizunerako biderik onena!

Erdi Mailako Heziketa Zikloak

- Ibilgailuen Elektromekanika
- Kontsumorako Ekipo Elektronikoak
- Soldadura eta Galdaragintza
- Mekanizazioa
- Erizaintzako Laguntza Osagarriak

D Eredua

Goi Mailako Heziketa Zikloak

- Fundizio eta Pulbimetalurgia Bidezko Produkzioa
- Metal Eraikuntzak

A eta D Ereduak

Aurreinskripzio Datak

Ekainaren 3tik 12ra (biak barne)

Goizeko 9:00etatik 17:00etara

Sta. Teresa, 25
Tel: 943 79 83 00 • 79 44 47
Faxa: 943 79 44 37
20500 ARRASATE
posta-e: iarrasate@euskalnet.net

Etxebarri auzoa, z/g
Tel: 943 79 79 00 • 79 79 43
Faxa: 943 77 09 55
20550 ARETXABAETA
posta-e: ia@iaretxabaleta.euskalnet.net

AURPEGIA BERRITU

ARGITASUN GEHIAGO NAHI?

Clarins Sérums Corps Peau Neuve

Gaueko tratamendua, koipe bakoa, azalari distira guztia ematen diona, zelula hilak kenduta eta adinaren adierazgarri agerrienak minimizatuta.

TINKOTASUN FALTARIK BADUZU?

Biotherm Densité Lift. Sérums Liftéur Fermété

Berehalako lifting efektuko edertasun Serum-a. Serumaren islatzaile agenteek zimurrak gutxitzen dituzte, eta efektu optikoa egiten dute.

5 MINUTUAN EDER EGON NAHI?

Clarins Multi-Régénérant

Eragin indargarri sendoko maskara. 5 edo 10 minutuan bakarrik azalari gatzetasun itxura ematen dio. Ondorioak: sendotu eta leundu; indartu eta hidratatu.

HASI DIRA ALDAKETA HORMONALAK*?

Lancôme Absolu. Crème Reconstituante Profonde

Elikagaiezko krema: barrutik, azalean adinagatik eta hormona eskasiagatik ahuldutako bizi funtzioak berpizten ditu.

*Azal helduendako tratamendu berezia.

Eska ezazu zure OPARIA!

Maiatzaren 11 eta ekainaren 8a bitartean, opari bikaina jasoko duzu Goi-mailako Perfumeriako edozein Tratamendu produktu eroste hutsarekin

...horrez gain,

hiru tratamendu-saskiren zozketan parte hartuko duzu, gure denda bakoitzean.

Izakinak amaitu arteko eskaintza. Ez da beste promozio batekin bateragarria.

KUPOI BEREZIA

Aurkez honako txartel hau DENOK PERFUMERIASen maiatzaren 11tik ekainaren 8a bitartean, eta tratamendu-mostra bat jasoko duzu doan.

Has ezazu...

Maiatzaren 11 eta ekainaren 8a bitartean

Hidrata AKZIO-a

Zure azala tratatzeko soluzio onenak



www.DENOK.COM

Laneko arropa garbi-garbi, merkeago eta erosoago

ZURIZURI LABANDEGIAK GARBIKETA ZAILENAK ZURE ORDEZ EGINGO DITU

■ Lantegiko koipeak izugarri altetzen du etxeko garbigailua eta behar baino askoz lehenago hondatzen du

■ Lanerako arropa garbitu, plantxatu eta josi egiten du Zurizurik, eta modu eroso eta pertsonalizatuan jasotzen du langileak

■ Fagor enpresak egindako punta-puntako makineria erabiltzen du Zurizurik: hiruna garbigailu eta lehorgailu industrial

Debagoiena oso eskualde industrializatua da; gure herrietan hamai-ka lantegi, tailer... daude. Lantegi horietatik gehienetan, koipea eta zikinkeria handia uzten duten lanak egin behar izaten dira. Eta hor dago arazoa: zelan garbitu koipe hori guztia?

Langile askok lan-jantzia, alkandora, prakak... etxera eramaten dituzte garbitzera. Baina horrek hainbat desabantaila ditu.

ETXEKO EKONOMIA ETA INGURUMENA ZAINDU

Etxeko ekonomiari begira, desabantaila nagusia da koipeak garbigailuari izugarriko kaltea egiten diola eta behar baino lasterrago hondatzen duela. Gainera, lantegietako koipea, sarritan, beste arropetan erantsita gelditzen da eta haiek zikintzen ditu, sarritan, konpondu ezinako moduan, zikinkeria hori kentzeko zaila delako. Horrez gain, norberak arropa etxean garbitzeak ingurumenari kalte handiagoa egiten dio.



Zurizuri labandegiko egoitza Oñatin dago, Berezaoko industrialdean.

KONPONBIDEA, ZURIZURI LABANDEGIAREN ESKUTIK

Zurizuri labandegiak arazo horiekin amaitzeko aukera ematen dizu. Zurizurik Debagoien osoko hainbat enpresari eskaintzen dio arropa garbiketa eta konponketa zerbitzua. Langile bakoitzak garbiketa behar duen arropa lan-

tegian utzi eta astelehenean jasoko du Zurizurik; eguenean, modu eroso eta pertsonalizatuan, bueltan izango du langileak. Arropa garbitzeaz eta plantxatzeaz gain, beharrezko dena josiko du Zurizurik.

Lanerako arropa modu erosoagoan garbi-garbi esku-

ratzeko aukera ematen dizu Zurizuri labandegiak. Euren zerbitzuei esker, etxeko garbigailuaren bizitza luzatzeko, zure poltsikoa zaintzeko, gainerako arropa koipez zikintzetik babesteko eta, hori gutxi balitz, lan astuna gaineratik kentzeko aukera izango duzu.

PUNTA-PUNTAKO TRESNERIA

Zurizuri labandegiak era guztietako zikinak garbitzeko instalazio onak ditu. Hiru garbigailu industrial ditu, 22, 25 eta 55 kiloko edukierakoak; baita hiru lehorgailu ere, 23, 34 eta 85 kiloko edukiera dutenak. Horrez gain, denetariko arropak plantxatzeko kalandra bat du. Bertan, izarak, aho-zapiak, mantelak, uniformeak... plantxatzen dituzte; izan ere, lantegietako arropaz gain, uniformeak erabiltzea eskatzen duen edozein lan motatako arropak garbitzen ditu Zurizurik. Makineria guztia Fagorrek egindakoa da.

Tindategia



DEBAGOIENEAN:

Enpresak, jatetxeak, gremioak, lantegiak,...

LABANDEGI INDUSTRIALA:

Oñatin

Orain, askoz ere gertuago!

TINDATEGIA: Bidebarrieta, 7 behea • Tel./Faxa: 943 78 19 48 OÑATI

LABANDEGIA: Berezaoko industrialdea, 13 • Tel.: 943 71 70 16 Faxa: 943 71 82 66 OÑATI
e-posta: zurizuri@tiscali.es

Labandegia



Goienka2a

Egubakoitza / 2002ko maiatzaren 24a

Kultura
eta
aisialdia



Maiatzaren
24tik 31ra

*“Ama, toreatzaile
izan nahi dut”*



Carlos Otadui
Arrasate / 18 urte



Ander Álvarez
Bergara / 16 urte



Aitor Jaso
Bergara / 15 urte

Hemezortzi urterekin toreatzaile ikasketak hasteko “nagusiegia” izango ote zen beldur zen Carlos, baina irakasleek etorkizuna iragartzen diote toreatzaile moduan.

Aitonak izugarriko zaletasuna zien zezenketei, eta Ander Álvarez haren gaitasunak etorri zitzaion grina. Gurasoak haserre ditu oraindik, baina Anderrek oso argi dauka bere bokazioa.

Bergarako jaietan, zaletasun moduan, hasi zen zezen-jolasetan, eta orain, Ilunbeko Toretzaile Eskolako ikasle da Aitor Jaso. Bere ametsa? *El Juli*-ren mailara iristea.

Etxean hitzok bota zituztenean, gurasoen haserrea piztu zuten, baina ametsa egi bihurtzeko bidean daude hirurak. / LEIRE KORTABARRIA

ZEZENKETA/IBARREKO HIRU GAZTE TOREATZAILE IZATEKO IKASTEN DABILTZA

Oso bestelako bokazioa

HIRU DEBAGOIENDAR HORIEN AMETSA EZ DA FUTBOLARI IZATEA, TOREATZAILE ON BAIZIK

Bigantxak, sokamuturra... gure jaietan horiek ikustera aski ohituta gaude. Zezenak protagonista diren ospakizunak baditugu geurean, bai horixe. Baina zezenketak ikustera ez gaude hain ohituta Debagoienez. Are gutxiago, toreatzaile izan gura duen jendea ezagutera.

“Batez ere hasieran, toreatzaile izan gura nuela komentatzen nuen, jarrera nahiko ezkorrek ikusi behar izan nituen. Jendeak arraro moduan begiratzen dizu”. Carlos Otadui gazte mondragotarraren hitzak dira. Bere ustez, zezenketa eta toreatzaile izatea “ez ditu ulertzen” Debagoieneko jende askok. “Hemen, futbolarekiko zaletasuna da nagusi; bestelako kirolak eta ikuskizunak ez dira hainbeste jarraitzen. Bai, arbuioa jasan izan dut”, kontatzen digu Carlosek. Toretzaile izatea ez da oso bokazio hedatua Debagoienez; hala ere, dei hori entzun duten hiru gazte behintzat aurkitu ditugu geurean.

DONOSTIAKO ZEZENKETA ESKOLAN

Carlos, Aitor eta Ander, bergararrak hauek biak, Donostiako zezenketa eskolan ikasten dabilta. Jakina, hori ez dute ikasketa bakarrik, baina bai eurek etorkizunerako ikusten duten bide bakarra. Ilunbeko eskola, Espainia-koekin alderatuta, oso txikia da: han hamalau lagun besterik ez



ANDER ALVAREZ

Hiru debagoiendarrak Nafarroako herri batera joaten dira saiakerak egitera urtean hainbat aldiz.

dabilta, tartean hiru debagoiendarrok. Jakina, argidun jantzi preziatua soinean eraman aurretik, gauza asko ikasi behar dituzte. “Domeketan izaten ditugu eskolak Donostian”, esaten digute. “Hasieran, kapotea eta muleta zelan hartu irakasten digute. Gero,

lagun batek zezenarena egiten du eta besteak hura toreatu behar du... horrelako ariketak”, gaineratzen dute Debagoieneko toreatzailegaiek.

Joselito, Juli, Abellán, Ponce... aipatzen dituzte eredu bezala. Baina hain urruti iristea zaila dela

onartzen diguten arren, eurek ez dute etsitzen. Hori bai, adorea behintzat ez zaie falta: “Afizioa behar da; hori izanez gero, zezenari diozun beldurra alde batera uzten duzu”, dioskue hirurek.

LEIRE KORTABARRIA

Ospakizun euskalduna

Zezenketa euskal erroko jaia da. Hala esan zuen Juan Luis Bikuña kazetariak Arrasaten egindako hitzaldi baten: “Zezenketa jaia geurea da sustrai-sustraietatik. Gertatzen dena da gure lurrean ez dela maitasunez edo behar bezalako errespetuz tratatu”, esan zuen Bikuñak hitzaldi hartan. Lehen zezenketa jaia 1131. urtean egin zen, Errioxan, euskal eraginpean zegoen herri baten. “Historian zehar 500 toreatzaile euskaldunetik gora izan dira”, zioen Bikuñak. Arrasaten, 1954an, Juan Juárez, Luis Bengoa, Jose Berezibar, Txelin eta Niño de la Gaseosa arrasatearrek toreatu zuten.



Arrasateko 1954.ko kartel bat.

CARLOS OTADUI / ARRASATE / 18 URTE

“Alternatiba hartu gurako nuke”

Amak telebistaz zezenketak ikusten aipini zuenean, orain dela 14 urte, Carlosi ez zitzaion hainbeste gustatu; baina hamar urte egin orduko, argi zuen bere bokazioa.

Nola erabaki zenuen toreatzaile izan nahi zenuela?

“Dei” antzeko bat izan zen. Joan ziren Gabonetan, nire burua toreatzen ikusi nuen, ametsetan. Ordura arte, gurasoek horiek ergelkeriak zirela esaten zidaten, baina oraingoan, baiezkoa eman zidaten eta Donostiako toreatzaile eskolan izena eman nuen.

Irakasleek zer diote? Artea badudala esaten



didate, baina gauzak astiro egin behar ditudala. Oso gogor nabil entrenatzen, eta hemendik urtebetera, toreatzeko aukera izango dut, Corellan.

Noraino heldu gura duzu?

Alternatiba hartu gurako nuke, eta honetatik bizi.

ANDER ALVAREZ / BERGARA / 16 URTE

“Toretzaile ona izatea, hori da nire ametsa”

Aitonak zezenketak ikustea gustuko zuen, eta harengandik etorri zitzaion zaletasuna Anderri.

Noiz izan zenuen argi zure bokazioa?

Oso txikitandik. Zazpi urte nituenean banekien toreatzaile izan nahi nuela. Ama oraindik haserre dago nirekin, bertan beharra uzteko esaten dit, baina... Gero, 13 urterekin, Donostiako toreatzaile eskolan hasi nintzen, eta hantxe nabil oraindik ere.

Benetako zezenketa-rik egin duzu?

Hainbat herritako jaietan ibili izan naiz, besteak beste, aurtengo Mendekos-



teetan, Bergaran; baina baita Kalagorri (Calahorra), Zaragozan, Nafarroan... Hamahiru urterekin egin nuen lehenengo proba.

Zein da zure ametsa?

Toretzaile ona izatera iristea. Ponce, Miguel Abellán eta El Juli dira nire idoloak.

AITOR JASO / BERGARA / 15 URTE

“Zezenari, beldurra baino, errespetua diot”

Hamabost urteko bergarar hau orain dela bi urteko herriko jaietan hasi zen errekorteak egiten. Anderrek konbentzitututa hasi zen Donostiako eskolan.

Ingurukoek zer diote zure bokazioaren gainean?

Gurasoek ez didate kasurik ere egiten, baina nik nire horretan jarraitzen dut. Lagunei dagokienez, batzuek ulertzen didate, besteak ez... denetarik.

Noraino iritsi nahiko zenuke zezenaren munduan?

Toretzaile moduan, onenatariko bat izatea gustatuko litzaidake, baina



badakit hori oso-oso zaila dela.

Herriko jaietz gain, beste inon ibili zara?

Bai; inguruko herrietako jaietan ere ibiltzen naiz. Zezenak ez dizu beldurrik ematen?

Beldurra baino gehiago, errespetua ematen dit.

KRONIKA/ BERGARAKO JAIAK

Parte hartze desorekatua jaietan

EKINTZA BATZUEK OSO ERANTZUN ONA IZAN DUTE, BAINA BESTE BATZUETAN, BERRIZ, EZ DU IA INORK ESKU HARTU

Bukatu dira Bergarako Mendekoste jaiak. Egitarau potoloa izan da aurten ere, ekintza askorekin; non aukeratu, behintzat, izan da. Hala ere, hainbeste ekintza antolatuta izan arren, parte hartzea ez da orekatua izan. Proposamen batzuk, arrakastatsu; beste batzuetan, inor ez.

Aurtengo jaietatik bi konklusio nagusi atera ditzakegu: batetik, parte hartzea, jende kopuruari dagokionez, gutxitu egin dela aurreko urteetakoarekin alderatzen badugu, gauez behinik behin. Baliteke horren arrazoia izatea kanpotik ere gero eta jende gutxiago etortzen dela. Eta, bestetik, Jai batzordeak antolatutako ekintza guztiak ez dutela erantzun bera izan. Ekintza arrakastatsuak oso arrakastatsu izan dira; beste batzuk, ordea, ia-ia ikus-entzule edo parte hartzaile barik gelditu dira. Beharbada, antolatzaileek gogoeta egin beharko lukete, eta euren buruari galdetu ea merezi duen horrenbeste gauza antolatzea eta horrelako inbertsioak egitea, gero jendearen erantzuna hain makala denean.

EKINTZA ARRAKASTATSUAK

Balantzaren alde baten aurtengo Mendekoste jaietako arrakastak ipini behar ditugu. Horien artean, musika emanaldi gehienak daude. Leku askotan antolatu dituzte estilo askotariko kon-




Zezen-jolasak, bigantxak... urtero bezain arrakastatsu izan dira aurten ere. Antolatzaileek iritzi ona azaldu dute, egunero plaza beteta izan da-eta zezen-jolasak ikusteko. Hori bai, entzierroak ez dira batere jendetsuak izan.

tzertuak, eta gehienek ere jende dezente erakarri dute. Salbuespen bakarra, akaso, astelehen gaueko erromeria da.

Ez bakarrik kontzertuek; kalejirek eta txarangek ere asko animatu dute giroa. Eta giroaz ber-

ba egiten badugu, asteleheneko eta martitzenekoa azpimarratu behar dugu. Batez ere, arratsalde eta gau partean jai giro alai eta jende asko izan zen. Herri bazkari jendetsuak zeresan handia izan zuten horretan, bai eta segidan




Musika. Eskaintza zabala egon da; batzuetan, hori kalterako izan zitekeen, leku askotan zegoelako zer entzun. Erromerietan, adibidez, ez da ia inor ibili; baina Bandaren kontzertuek, *camp* dantzaldiek... oso harrera ona izan dute.

izan ziren ekintzek: trikitixa, musika, poteoa, eta abar.

PARTE HARTZE SINBOLIKOA

Ez da gauza bera gertatu, ordea, pilota jaialdiarekin, baltsa-jaitsierarekin, entzierroekin... Ekintza



Salmenta postuak. Inoiz baino ugariagoak izan dira, eta kale bazter guztietan ikusi ahal izan ditugu. Markak hautsi dira aurten: 75 salmenta leku izan dira kaleetan. Begiratzen bai eta erosten ere, jendea ez da falta izan.

horiek parte hartze sinbolikoa besterik ez dute izan, eta kontua da lana eta inbertsioak eskatu dituztela. Pentsatu egin behar berriro ere antolatzea merezi ote duen.

GOIENKARIA

↑ Musika, zezenak, giroa...

Sukaldaritza lehiaketa

Parte hartze altua izan du gastronomia elkar-teek antolatutako Bakailao Lehiaketak: 16 elkartek hartu dute parte. Zapatu goizean jokatu zen txapelketa.

Golden Apple Quartet

Musikarekin lotuta-ko proposamen gehienak arrakastatsu izan dira aurten. Dantza Suelto Txapelketan, Bandako kontzertuetan, *camp* dantzaldietan, rock kontzertuetan... jende asko izan da. Ekimen txalotuena Golden Apple



Quartet-en kontzertua izan zen. Erromerian, aldiz, jende gutxi izan zen.

Zezen jolasak

Oso sarrera ona izan du zezen-plazak ekitaldi guztietan. Bigantxak, zezen-jolasak... gus-tuko dituzte bergar-rarek. Plaza bete-ta izan da egun gehienetan.

Herri bazkaria eta poteoa

Herri bazkaria aurten-**H**go ekitaldirik jende-tsuenetarikoa izan da: 190 lagun elkartu ziren marti-tzenezan herriko plazan, mahaiaren bueltan. Oso

giro jatorra eta alai izan zen, ez bakarrik bazka-rian, baita ondorengo ekintzetan ere: musika, poteoa...

Eguraldia, beti lagun

Egun gehienetan giro ona izan da; hala ere, egubakoitzean, euripean izan arren, jende ugari elkartu zen Bitorianatxoren jaitsiera ikustera.

Herri kirolak

Perurenatarrak ikuste-**P**ra ere jende multzo polita inguratu zen marti-tzen eguerdian herriko plazara. Herri kirolek tiroi majoa izan dute aur-tengo Mendekosteetan

↓ Lapurretak, txarrena

Diru-zorro lapurreta asko

Aurtengo gertaerarik Aezkorrena ezin zaie antolatzaileei leporatu. Diru-zorro lapurreta ugari izan da, batez ere, gauez zebiltzan gazteei. Udaltzainek 40 diru-zorro jaso zituzten bulegoetan.

Barraka berririk ez

Barraketan ume eta Baita-ama askotxo ibili dira, urtero moduan. Edozelan ere, erakarpen deigarri edo berriren baten falta igartzen zen; adibidez, orain dela urte batzuk ekarritako zezen mekanikoaren tankerako barrakaren bat.

Baltsa-jaitsieran, bi

Orain dela bizpahiru **O**urte antolatu zuten lehenengoz Deba ibaian baltsa-jaitsiera, eta aurten ere hala egin dute. Bi parte hartzaile beste-rik ez da izan. Azken momentu-ko ideia izan dela-eta, ulergarria da, baina, hain emaitza eskasa.

Oso jende gutxi entzierroetan

Bigantxek eta zezen-**B**jolasek jende asko erakarri bazuten, ez da gauza bera gertatu entzierroekin. Desbidera-

ketak, noranzko aldake-tak... egin behar izan dituzte, baina banaka bat lagun besterik ez genuen ikusi entzierroan.

Txosnetan eta kalean, kiratsa

Txosnen gunean, **T**batez ere, baina baita kaleetan barrena ere, goiz partean, batik bat, jasan ezineko kiratsa sumatzen zen.



Pilota jaialdia, eskas

Pilota jaialdian ehun **P**bat ikusle elkartu ziren. Seguruenik, kartelean izar handirik ez zegoelako izango zen.

Maiatzak 24-31

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguzteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxe: 943 76 29 77

ANTZERKIA

ARRASATE

► *Hablar es de bobos* lana eskainiko du Sobradun taldeak bihar, hilaren 25ean, Amaia antzokian, 22:30ean.

OÑATI

► *Rock & Clown* antzezlanak jokatuko du Yllana taldeak datorren egubakoitzean, hilaren 31n, Santa Ana antzokian, 22:30ean.

ERAKUSKETAK

ANTZUOLA

► *Irak-en gaineko erakusketa* dago zabalik Olanan etxean, hilaren 26ra arte, Anelkarrek antolatuta.

ARETXABALETA

► *Kepa Akixo* eskultorearen egurrezko irudien erakusketa izango da ikusgai ekainaren 30era arte. Udaletxe-ko ganbaran izango da.

ARRASATE

► *Arrasateko Gaztetxe*ko kontzertuen historia karteletan: *1991tik gaur eguneraino* izeneko erakusketa dago zabalik gaztetxean. 170 kartel inguru eta kontzertuetarako hainbat sarrera daude erakusgai.

LEHIAKETAK

ESKORIATZA

► *San Pedro* jaietarako esaldi lehiaketa deitu du udalak. Hirutik bost lagunera bitarteko taldeetan parte hartu ahal izango dute 13 urtetik gorako eskoriatzarrek. Talde bakoitzak gura beste esaldi aurkeztu ditzake. Udaletxe eta kultura etxe eskapeetan ipiniko dituzten buzoietan sartu beharko dituzte esaldiak, maiatzaren 25etik ekainaren 2ra bitartean, lema edo ezizen bidez. Irabazleak 40 euro eskuratuko ditu.

OÑATI

► *Txantxiku Arkulariak* taldeak 30 eta 50 metrora tiraketa txapelketa antolatu du, ekainaren 1ean, Ibarren, 17:00etatik aurrera.

DEIAK

ANTZUOLA

► *Piriniotara irteera* antolatu dute eskualdeko mendi taldekoek. Hilaren 25ean eta 26an izango da.

ARETXABALETA

► *7 kolore* izeneko diaporama eskainiko du Jon Arretxe idazleak egunean, hilaren 30ean, udaletxe zaharrean, 19:00etan.

ARRASATE

► *Ekintza Zuzena* aldizkariaren zenbaki berria aurkeztuko dute etzi, domekan, gaztetxean, 18:00etan.

BERGARA

► *Azpiroz - Lizarrusti* ibilbidea duen mendi martxa antolatu dute Pol-Pol mendizale taldeak eta Gorla Alpino taldeak maiatzaren 26rako. Frontoian elkartzeko dira, 08:00etan.
► *Jolasleku Ibiltaria 2002* programa martxan jarri du Jardun elkarteak. 6-12 urteko umeendako. Maiatzaren 24an, Boluko plazan izango dira.

DEBAGOIENA

► *Jon Agirre* presoaren alde, *Murura mendi* martxa izango da domekan. 09:00etan izango da irteera, Aramaioko kiroldegitik, Aretxabaleketa udaletxetik eta Arrasateko Arbolapeta plazatik.
► *Debagoieneko Merkataritzarako Laguntza Teknikorako Bulegoko arduradun berria* Jorge Blázquez izango da aurrerantzean. Honako ordutegian atzitu zaituzte: 09:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 18:00etara.

ELGETA

► *Burgosera* egun osoko irteera antolatu du erretiratuen elkarteak maiatzaren 24rako. Hiriburua eta hiru

herri bisitatuko dituzte. Joan nahi duenak lehen bailehen egin beharko du izenematea.

ESKORIATZA

► *Udaleku irekiak eta Gaztekantoi aisialdi egitasmoak* antolatu ditu udalak uztaile honetarako. Lehenengo 4-12 urte bitarteko neska-mutikoendako izango da; bigarrena, 13-16 urte bitartekoendako. Izena emateko, jo kultura etxera, 11:00-13:00 edo 14:00-17:00. Maiatzaren 29a da mugaguna.

OÑATI

► *Chillida-Lekura irteera* antolatu du Elkar Hezi ikastetxeak hilaren 25erako, zaturako. Bertan, ikasleek saio poetiko-musikala eskainiko dute.
► *Liburu eguna* ospatuko dute Elkar Hezi ikastetxeak maiatzaren 30ean, egunean. Ipuin kontalarien emanaldiak eta liburu bitxiaren erakusketa izango dira egun horretan.
► *Oñati Hiria literatura lehiaketa* sari banaketa izango da egunean, maiatzaren 30ean, udaletxe areto nagusian, 18:30ean.
► *Zabalik dago uztaileko udaleku irekietan parte hartzeko* matrikula-

zio epea. Interesa dutenek etxera bidalitako orria bete beharko dute, eta Euskadiko Kutxan ordainketa egin.

JAIK

ARETXABALETA

► *Euskararen eguna* ospatuko da bihar. 11:30etik aurrera, trikitilariak, gazta eta sagardo dastaketa, bertsolariak, bazkari herrikoia, dantzaldiak, xake partidak, titiriteroen eta musikariaren emanaldiak... izango dira. Egun guztian zehar, erakusketak izango dira udaletxe zaharrean.

ARRASATE

► *Trikitilarien jai eguna* izango da bihar, zapatuan. 12:30ean, kalejira izango da; 14:30ean, bazkaria Uarkapen; eta 18:00etatik aurrera, plazan, umeendako jolasak eta Etxabe anaien emankizuna.

ESKORIATZA

► *Mondragon Unibertsitateko Humanitate Fakultateko jaiak*

ospatuko da gaur, hilaren 24an. Fakultateko aparkalekuan izango da; euria eginez gero, pilotaleku zaharrean. 10:00etatik 19:00etara, hainbat ekintza izango dira.


OÑATI

► *Araotz* auzoko jaiak izango dira asteburu honetan, maiatzaren 25ean eta 26an.
► *Korpus jaietako aurrekari bezala*, hainbat ekintza izango dira datorren egubakoitzean, hilaren 31n. Goizean zehar, Oñatz taldea auzoetan arituko da dantzari; arratsaldean, dantzarien ekitaldia izango da ikastetxeetan; 19:15ean, txorimaloak eta erraldoiak irtengo dira, txistulari bandak lagunduta.

MUSIKA

ANTZUOLA

► *Orkestra gazteak eta Antzuola-ko abesbatza gazteak* emanaldia egingo dute datorren egubakoitzean, maiatzaren 31n, elizan, meza ondoren.



► JAIK

ARRASATEKO IV. ELKARTASUN EGUNA OSPATUKO DUTE

Elkartasun Eguna antolatu dute, beste behin, Mondragoeko hainbat taldek: Harreman-ek, Komite Internazionalistek, Mugarik Gabeko Ingeniaritza elkarteak, Mundu Solidarioa Helburu taldeak eta Serso-San Viatorrek. Ekitaldi nagusia bihar izango da, zapatuan. Seber Altube plazan elkartzeko dira eta honako ekintzak egingo dituzte han: batetik, erakusketak; bestetik, material salmenta: liburuak, aldizkariak, elastikoak...; bidezko merkataritzako produktuen dastaketa eta salmenta, umeendako jolasak eta, 19:30ean, kanpo zorraren inguruko kale antzerkia.

Non: Arrasateko Seber Altube plazan. **Noiz:** Maiatzaren 25ean, zapatuan. **Ordua:** 10:00etatik 20:00etara.

**HO
EI**

**EIBARKO
HIZKUNTZA
ESKOLA
OFIZIALA**

Jardiñeta, 3 - EIBAR
Tfno.: 943 20 06 18

AZTERKETA LIBREEN EGUNAK EKAINA - 2002

MAILA	EGUNA	ORDUA
EUSKERA		
O.Z.	Maiatzak 29	16.00
G.Z.	Ekainak 11	15.00
INGELES		
O.Z.	Maiatzak 30	16.00
G.Z.	Ekainak 6	16.00
FRANTZESA		
O.Z.	Ekainak 3	15.30
G.Z.	Ekainak 18	9.30
O.Z.= Oinarrizko Zikloa / G.Z.= Goi Zikloa		

OHARRA: Eskola karnetarekin batera guztiz beharrezkoa izango da **N.A.N.a** aukeratzea. E-mailen argitarapen egunak eta ahozko azterketenak ere azterketa idatzietan jakinaraziko dira.
www.euskalnet.net/eoieibar



SEN TALDEAREN KONTZERTUA OÑATIN

Sen laukoteak *Gaizki esanak...* izeneko bere disko berria aurkezteko kontzertua eskainiko du bihar, maiatzaren 25ean, Oñatiko Santa Ana antzokian, 22:30etik aurrera. Sarrerak hiru eurotan salduko dituzte.

Zinema

BERGARA

► **Cockney Rejects eta Segismundo Toxicómano** taldeen emanaldia izango da gaur, egubakoitzean, hilaren 24an, Jam aretoan, 22:00etatik aurrera.
► **Gallon Drunk eta Audience** taldeek kontzertua eskainiko dute eguenean, maiatzaren 30ean, Jam aretoan, 21:00etan.

OÑATI

► **Oñati eta Ganbara abesbatzen emanaldia** izango da etzi, domekan, hilaren 26an, Arantzazuko basilikan, 19:30ean, Oñatiko XXIV. Musikegunak programaren barne.

IKASTAROKAK

ARETXABAETA

► **Balio pertsonalen lantegia** antolatu du Sadhana zentroak. Argibideetarako edo izena emateko, deitu 616 96 57 95era.
► **Txalaparta ikastaroa** izango da maiatz osoan barrena. Argibideetarako edo izena emateko, jo Loramendi euskara elkartera.

ARRASATE

► **Ingurugiro ikastaroa** antolatu du udalak ekainaren 14rako, 18rako eta 21erako, ingurugiro eskolan. Zaborraren zer egin, birziklatzea... landuko dituzte. Ikastaroa doan izango da. Argibideetarako, jo gazte bulegora.
► **Emakume gazteei zuzendutako bi ikastaro** jarri ditu abian emakume sailak: eskalada ikastaroa, ekainean, Oñatin eta Eginon; eta autodefentsa ikastaroa, hau ere ekainean, 10 orduz, doan. Argibideetarako, jo emakume sailera.
► **Perkusiozko arabiar erritmoen hastapen tailerra** antolatu du Iñaki Bruñak. Gazteluondoko aretoan izango da, maiatzaren 27an eta ekainaren 3an, 10ean eta 17an, 18:00etatik 20:30era. Izena emateko, deitu 943 79 80 25 (Iñaki).
► **Bioenergetika ikastaroa** antolatu du Arrasate yoga elkarteak. Argibideetarako edo izena emateko deitu 616 96 57 95 telefonora.

ESKORIATZA

► **Ardo dastaketa ikastaroa** antolatu du Axtroki elkarteak maiatzaren 28tik 30era, 19:00-21:00. Izena emateko muga eguna maiatzaren 24a izango da. Horretarako, jo ludotekara edo euskal txokora.

BIDEOA

ARRASATE

► **Film laburren jaialdia** izango da bihar, zapatuan, maiatzaren 25ean, gaztetxean, 22:00etan.

ARRASATE

■ ALAI ZINEMA

La guerra de Hart
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua eta domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

Un padre de cuidado
Zapatua eta domeka: 17:00.

■ AMAIA ANTZOKIA

Camiantes
Eguena, zine-kluba: 21:30.

BERGARA

■ NOVEDADES

Blade II
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ik. eguna: 19:30.

Yo soy Sam
Eguena, zine kluba: 20:00.

OÑATI

■ SANTA ANA

Blade II
Egubakoitza: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

EIBAR

■ UNZAGA

Star Wars II: El ataque de los clones
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

■ RIALTO

The Majestic
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

GASTEIZ

■ GURIDI

La habitación del pánico
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Suavemente me mata
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Blade II
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Star Wars II: El ataque de los clones
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

Nowhere
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

No debes estar aquí
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

■ MIKELDI ZINEMAK

Suavemente me mata
Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.

No somos nadie
Egubakoitza: 17:30, 20:15, 22:45.
Zapatua eta domeka: 20:15, 22:45.

Star Wars II: El ataque de los clones
Egubakoitza: 17:00, 19:45, 22:45.
Zapatua eta domeka: 17:00, 20:00, 22:45.

El rey Escorpión
Egubakoitza: 17:30, 20:15, 22:45.

Zapatua eta domeka: 16:15, 18:15, 20:15, 22:45.

Peter Pan: regreso al país de Nunca Jamás
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30.

Así es el amor
Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 20:00, 22:30.

Monstruos S.A.
Zapatua eta domeka: 16:15, 18:15.

Impulsos
Egubakoitza: 17:30, 20:15, 22:45.
Zapatua eta domeka: 16:15, 18:15, 20:15, 22:45.

Blade II
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

Charlotte Gray
Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.

Jugar duro
Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.

Martitzena, ikuslearen eguna.

■ FLORIDA-GURIDI

El hombre que nunca estuvo allí
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

El hijo de la novia
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Un perro llamado dolor
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

El alquimista impaciente
Egunero: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30.

Cuando todo esté en orden
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Cosas que diría con sólo mirarla
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Elling
Egunero: 20:00, 22:30.

Ángeles de negro
Egunero: 17:30.

■ STER ZINEMAK

El rey Escorpión
Egubakoitza: 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

Zapatua: 12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

Domeka: 12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00.

Star Wars II: El ataque de los clones
Egubakoitza: 18:25, 22:00, 00:50.

Zapatua: 12:00, 15:30, 18:25, 22:00, 00:50.
Domeka: 12:00, 15:30, 18:25, 22:00.

No debes estar aquí
Egubakoitza: 18:20, 20:30, 22:35, 00:40.

Zapatua: 12:20, 16:15, 18:20, 20:30, 22:35, 00:40.
Domeka: 12:20, 16:15, 18:20, 20:30, 22:35.

La guerra de Hart
Egubakoitza: 18:10, 00:45.

Zapatua: 15:35, 18:10, 00:45.
Domeka: 15:35, 18:10.

La habitación del pánico
Egubakoitza: 17:55, 20:20, 22:45, 01:10.

Zapatua: 12:35, 15:30, 17:55, 20:20, 22:45, 01:10.
Domeka: 12:35, 15:30, 17:55, 20:20, 22:45.

Impulsos
Egubakoitza: 18:35, 20:40, 22:45, 00:50.

Zapatua: 12:10, 16:30, 18:35, 20:40, 22:45.

Blade II
Egubakoitza eta zapatua: 17:40, 20:10, 22:40, 01:10.

Domeka: 17:40, 20:10, 22:40.

Sesión 9
Egubakoitza eta zapatua: 18:05, 20:15, 22:25, 00:35.

Showtime
Egubakoitza: 20:45, 22:40.

Zapatua eta domeka: 12:25, 20:45, 22:40.

Aventuras en Alaska
Zapatua eta domeka: 12:05, 15:35.

La isla del cangrejo
Zapatua eta domeka: 12:30, 16:25.

■ YELMO CINEPLEX

Star Wars II: El ataque de los clones
Egubakoitza: 16:00, 18:50, 21:40, 00:30.

Zapatua: 11:30, 16:00, 18:50, 21:40, 00:30.
Domeka: 11:30, 16:30, 19:20, 22:10.

El alquimista impaciente
Egubakoitza: 15:30, 17:45, 20:10, 22:35, 00:55.

Zapatua: 11:45, 15:30, 17:45, 20:10, 22:35, 00:55.
Domeka: 11:45, 15:30, 17:45, 20:10, 22:35.

Ángeles de negro
Egubakoitza eta zapatua: 19:45, 21:50, 00:00.

Domeka: 19:45, 21:50.

La habitación del pánico
Egubakoitza: 15:35, 17:50, 20:15, 22:30, 00:40.

Zapatua: 12:05, 15:35, 17:50, 20:15, 22:30, 00:40.
Domeka: 12:05, 15:35, 17:50, 20:15, 22:30.

John Q.
Egubakoitza eta zapatua: 19:30, 21:55, 00:20.

Domeka: 19:30, 21:55.

Tanguy
Egubakoitza eta zapatua: 22:15, 00:25.

Domeka: 22:15.

Alí
Egubakoitza: 15:20, 18:15, 21:15, 00:15.

Zapatua: 11:30, 15:20, 18:15, 21:15, 00:15.
Domeka: 11:30, 16:00, 19:00, 22:00.

Suavemente me mata
Egubakoitza: 15:40, 18:00, 20:05, 22:10, 00:35.

Zapatua: 11:55, 15:40, 18:00, 20:05, 22:10, 00:35.
Domeka: 11:55, 15:40, 18:00, 20:05, 22:10.

Sesión 9
Egubakoitza: 15:40, 17:55, 20:00, 22:05, 00:15.

Zapatua: 12:10, 15:40, 17:55, 20:00, 22:05, 00:15.
Domeka: 12:10, 15:40, 17:55, 20:00, 22:05.

Showtime

Egubakoitza: 16:15, 18:10, 20:20, 22:45, 00:50.
Zapatua: 12:30, 16:15, 18:10, 20:20, 22:45, 00:50.
Domeka: 12:30, 16:15, 18:10, 20:20, 22:45.

Nunca juegues con extraños
Egubakoitza: 15:45, 17:40, 19:40.

Zapatua eta domeka: 12:25, 15:45, 17:40, 19:40.

La guerra de Hart
Egubakoitza: 15:20, 17:40, 20:00, 22:25, 00:45.

Zapatua: 11:50, 15:20, 17:40, 20:00, 22:25, 00:45.
Domeka: 11:50, 15:20, 17:40, 20:00, 22:25.

Peter Pan: regreso al país de Nunca Jamás
Egubakoitza: 15:50, 17:35.

Zapatua eta domeka: 12:00, 15:50, 17:35.

Iris
Egubakoitza eta zapatua: 20:25, 22:20, 00:10.

Domeka: 20:25, 22:20.

E.T.
Egubakoitza: 15:25, 18:05.

Zapatua eta domeka: 11:40, 15:25, 18:05.

El quinto hombre
Egubakoitza: 15:25, 17:20.

Zapatua eta domeka: 11:35, 15:25, 17:20.

Blade II
Egubakoitza: 15:30, 17:45, 20:10, 22:35, 00:55.

Zapatua: 11:45, 15:30, 17:45, 20:10, 22:35, 00:55.
Domeka: 11:45, 15:30, 17:45, 20:10, 22:35.

No debes estar aquí
Egubakoitza: 15:35, 17:30, 19:35, 21:55, 00:05.

Zapatua: 11:40, 15:35, 17:30, 19:35, 21:55, 00:05.
Domeka: 11:40, 15:35, 17:30, 19:35, 21:55.

Astelehena, ikuslearen eguna.

E.T.: ●●●●● | Monstruos S.A.: ●●●●● | El hombre que nunca estuvo allí: ●●● | Blade II: ●● |

TXARRA:●● ESKASA:●● BALEKOA:●●● ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

KRITIKA

EL ATAQUE DE LOS CLONES

PUNTUAZIOA: ●●●


ZUZENDARIA: George Lucas.

AKTOREAK: Ewan Mc Gregor, Hayden Christensen, Natalie Portman

El ataque de los clones filmeko protagonista nagusia hurrengo filmetan Darth Vader izango den Anakin Skywalker gaztea du. Gazte hori Jedi izateko ikasten ari da eta haren irakaslea Obi Wan Kenobi da. Irakaslea Jedi en apaltasuna eta irriken kontrola irakasten ahalegintzen da, baina Anakinengan oraindik gaztaroan ohikoa den

izaera oldartsu eta inkonformistaren barnean, alde ilun eta arduragarri bat sumatzen da. Horrez gain, filmak ezinezko amodioaren kutsua duen istorio bat eskainiko digu, Anakin eta Amidala senatariaren arteko amodioa, hain zuzen ere. Poliki-poliki, harreman horien sendotzea ikusteko aukera izango dugu. Eta osagai horiei, Errepublikaren kontra mugitzen ari diren etsaien mehatxua eta arriskua gehitzen badiogu, abenturaz betetako film dibertigarria eta hun-kigarria egiteko ezaugarri guztiak daukela pentsa dezakegu. Baina ez da horrela gertatzen: filmean efektu berezietatik hartzen duten garrantziak eta neurri faltak filmaren xarma murrizten dute.

Gaur eguneko zineman efektu digitalak hartzen ari diren indarra eta nagusitasuna, azkenean, filmaren motor eta protagonista bihurtzen dira. Horrela,



aurrerapen tekniko horien garrantzi gehiegi hartzeak eta gehiegizko erabilteak ikusleen begiak nekatu eta gogaitu egiten dituzte. Akats hori *Star Wars*-en filmetan argi eta garbi ikusten da. Lucas-en *El ataque de los clones*, irudi

aldetik, zoragarria da, baina ez du, adibidez, sagaren lehen filmak *La guerra de las galaxias*-zuen freskotasuna, abilezia eta abenturaren zaintza. Filmak ikuslea liluratu nahi du, baina plano guztiak efektu bereziz, zomorroz eta bataila luzeegiz beteta egoteak eta hainbeste pertsonaia desberdinen agerpenek eta bilbe edo trama nahasiek ikuslea nekatzeko lortzen dute. Alderantziz, irudien ikusgarritasuna gutxitzen denean eta efektuen eragina mugatzen direnean, abenturaren indarrak eta xarmak gora egiten dute. Adibide moduan, basamortuko eszenak ditugu, Anakin amaren bila doanean. Tamalez, filmak, pasarte onak izan arren, bere handikerian, zehaztasuna eta sedukzio ahalmena galdu egiten ditu.

ANTONIO ZABALA

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Bergara. Azkarruntzen etxebizitza salgai. Bi logela. Berrituta eta jantzita. 943 76 59 50. Deitu eguerdian edo gauetan.

Arrasate. San Josepen etxebizitza salgai. Bi gela, egongela, ganbara, barruko etxarrea... 117.200 euro. 943 77 04 12.

Bergara. Ibargain etxebizitza eta garajea salgai. Hiru logela, egongela, jangela... Guztiz berrituta. 620 35 61 70.

Arrasate. Larrea plazan etxebizitza eta garajea salgai. Oso egoera onean. 658 73 89 64.

Eskoriatza. Etxebizitza berria salgai. Bi logela, sukaldea, bainugela eta egongela. 656 76 52 20.

Donostia. Etxebizitza salgai Antiguu inguruan. Hondartzatik eta Miramar jauregitik gertu. 16:00etatik aurrera deitu: 943 79 92 02.

Bergara. Askarruntzen (Gaztelumendin) etxebizitza salgai. 943 76 00 35 edo 649 28 96 01. Jose.

Arrasate. Gerra kalean 50 m²-ko etxebizitza salgai. Bi logela. Jantzita eta berrituta. 943 77 12 75 edo 696 70 94 00.

Arrasate. Ferrerías kalean etxebizitza salgai. 943 79 31 30.

Antzuola. Laster egiten hasiko diren etxebizitzan adosatua salgai. Garajea eta solairu bi. 943 76 63 94.

Eskoriatza. 92 m²-ko etxebizitza salgai. Hiru logela, garaje itxia, ganbara... 605 77 35 16.

102. EROSI

Arrasate. Cerrajerako etxe berrietan kanpoalderako etxebizitza erosiko nuke. 656 77 12 97.

103. ERRENTAN EMAN

Peñíscola (Castellón). Etxe-

OÑATI

JARDUNEAN DAGOEN NEGOZIOA SALTZEN DA OÑATIN. 667 71 32 41

ARRASATE

ILEAPAINDEGIA SALDU EDO ESQUALDATZEN DA. OSO PREZIO INTERESGARRIA 943 79 03 64

bizitza ematen da errentan uztaileko eta iraileko hilabeteetan. Parkinga, igerilekua eta hondartzatik 100 metro-ra. 943 79 48 82.

Bergara. Martoko jantzita dagoen etxebizitza ematen da errentan. 615 75 11 02.

Almería. Pasealeku Maritimoan bi logelako etxebizitza ematen da errentan abuztuan eta irailean. Hamabost egun, 600 euro. 649 03 47 20.

Almería. Hiri erdialdean etxebizitza ematen da errentan. Hilabetea, 600 euro. 649 03 47 20.

Benidorm. Itsasoari begira dagoen apartamentua ematen da errentan. 630 41 84 65.

Donostia. Apartamentua ematen da errentan Intxaurrondo zaharrean, uztailean (600 €) eta abuztuan (780 €). 943 77 21 28. Gazez, edo utzi mezua.

Arrasate. Hiru ikasleendako etxebizitza ematen da errentan unibertsitate gertu. 943 79 61 94.

Peñíscola. Bungalowa errentan ekainean, uztailean, abuztuko bigarren astean eta irailean. 943 77 05 88.

Laredo. Hondartzaren ondoren dagoen apartamentua ematen da errentan. 943 79 52 80.

Benidorm. Levanteko hondartzaren ondoren dagoen apartamentua ematen da errentan. Igerilekua eta apartamentua ditu. 943 74 20 31

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

2. GARAJEAK

201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

4. LANA

401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

5. IRAKASKUNTZA

501. ESKAINTZAK
502. ESKAERAK
503. BESTELAKOAK

3. LOKALAK

301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

6. MOTORRA

601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

7. ANIMALIAK

701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

8. DENETARIK

801. SALDU
802. EROSI

803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK

901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

10. RELAX

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako deiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 76 92 71

sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 9 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO. GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ARAMAIO

ZERBITZARIA BEHAR DA ASTEBURUETAN LAN EGITEKO. 686 06 72 97

edo 943 74 38 27.

Alcoceber. Konplexu turistikoko handi baten dagoen etxebizitza ematen da errentan. Bi igerileku, tenis pista... 943 76 29 91 (egunez) edo 943 76 12 89 (gazez).

Donostia. Irailetik aurrera etxebizitza ematen da errentan. 656 71 06 09.

Peñíscola. Apartamentua ematen da errentan, 4-6 lagunendako. Uztaileko lehen hamabostaldian. Igerilekua, parkinga... 943 79 57 31.

Arrasate. Erdialdean duplexa ematen da errentan. Sukaldea, egongela, komun bi eta komuntxo txiki bat. Lau loge-

OÑATI

ILE APAINTZAILEA BEHAR DA OÑATIKO ILE APAINDEGI BATEN. 607 81 52 74

la eta atikoa. 943 79 79 51.

Arrasate. Unibertsitate gertu etxebizitza ematen da errentan lau ikaslerendako. 943 79 40 44.

Donostia. Etxebizitza ematen da errentan hiruro ikaslerendako. 600 euro. Deitu 20:00etan. 615 14 16 28.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Bikote batek etxebizitza alokairuan behar du. 649 08 79 65 (Noemi).

Arrasate. Aretxabaletan edo inguruan etxebizitza hartuko nuke errentan. 943 79 87 40

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Unibertsitate gertu dagoen etxea osatzeko lagun bat behar dugu. 652 75 48 81. Esti.

Bergara. Uztailetik aurrera bi neska behar dira etxea osatzeko. Mezua laga. 943 76 18 00.

Arrasate. Etxebizitza osatzeko pertsonaren bat behar baduzu, deitu. 657 79 13 92.

Arrasate. Unibertsitatearen ondoren lagun bat behar dugu etxebizitza osatzeko. 679 21 35 07.

Arrasate. Neska bi behar ditugu etxebizitza osatzeko. 943 77 16 54.

ARRASATE

JATETKE BATEN ESPERIENTZIADUN ZERBITZARIA BEHAR DA ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA (ORDUTEGIA: 13:00-16:00) LAN EGITEKO. 943 79 60 10

BERGARA

LASA JATETKEAN SUKALDERAKO LAGUNTZAILEA ETA GARBITZAILEA BEHAR DIRA. 943 76 10 55

2/ GARAJEAK

202. SALDU

Aretxabaleta. Garajea salgai Andramari auzunean. Tel.: 943 79 24 01.

Arrasate. Txindoki dorreko goiko solairuan garajea salgai. 943 79 24 10.

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Ibargain garajea ematen da errentan. 943 76 72 17.

Bergara. Zurraderon garajea ematen da errentan. 943 76 73 48.

3/ LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

Bergara. Espolioan lokal komertziala ematen da erren-

ARRASATE

SARA MERENDEROAN SUKALDEAN LAN EGITEKO PERTSONA BAT BEHAR DA. ASTEAN BI EGUNEAN JAI ABUZTUAN HIRU ASTEKO OPORRAK, GABONETAN HAMAR EGUN ETA ASTE SANTUAN ASTEBETE JAI. 943 77 15 86 (EDURNE)

tan. Eguzkitsua. 943 76 16 89.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Neska gertu 17:00etatik aurrera eta aste bukaeretan etxeko lanak egin, umeak zaindu edo tabernetan lan egiteko... 679 31 75 43. Maider.

Neska gertu 17:00etatik aurrera eta aste bukaeretan etxeko lanak egin, umeak zaindu edo tabernetan lan egiteko... 666 24 40 16. Naiara.

Bergara. Neska gertu etxeko eta atariak garbitzeko. 669 12 70 98.

Neska gertu arratsalde (15:00etatik 19:00etara) etxeko, atariak... garbitzeko. 943 76 36 68.

Neska gertu astelehenean egubakoitzera edozein lan egiteko. 620 51 34 25.

Arrasate. Emakumea behar

da goizetan ume bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 652 77 43 22.

Bergara. Bi neska gertu atariak, elkarte, taberna... garbitzeko. 606 84 16 46. Lali.

Bergara. Mutil gaztea gertu asteburuetan (egubakoitzetik domekara) tabernaren baten lan egiteko. 943 76 23 15. Deitu 17:00etatik aurrera. Dani.

Emakumea gertu edozein lan egiteko. 639 46 50 15.

Neska gertu etxeko lanak egin edo lantegi baten lan egiteko. 655 73 54 85.

Neska gazteak zerbitzari moduan lan egin gurako luke. Eskarmentua du lanean. 617 72 47 83.

Aretxabaleta. Andra bat behar da eskola orduetik kanpo umeak zaintzeko. 610 33 67 04.

402. ESKAERAK

Bergara. Emakumea behar da egunean bost orduz ume bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 943 76 08 48. Gazez deitu.

Bergara. Emakumea behar da goizetan etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. 616 59 20 18. Deitu 20:00etatik aurrera.

Bergara. Emakumea behar da astean hiruro egunean etxea garbitzeko. 943 20 73 68. Jaione. Deitu 20:00etatik 22:00etara.

Arrasate. Emakumea behar da goizetan ume bat zaintzeko. 652 77 43 22.

Aretxabaleta. Andre bat behar da eskola orduetik kanpo umeak zaintzeko. 610 33 67 04.

5/ IRAKASKUNTZA

501. ESKAINTZAK

Arrasate. Laguntza eskolak ematen ditut. 649 22 51 07 edo 943 79 58 83 (arratsaldean).

502. ESKAERAK

Arrasate. Euskara eta Matematika eskola partikularrak emateko irakaslea behar da. 608 77 54 12.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Audi 80 Turbo Diesel autoa salgai. Egoera onean dago. Prezioa: 2.100 euro, negoziagarriak. 630 92 52 53.

Suzuki RF 600 R motoa salgai. 65.000 Km. 1994. urtekoa. Gorria, ondo zainduta. 3.900 euro. 657 70 49 98.

Suzuki Katama motoa salgai. 49 cm³. 943 78 31 85.

Ford Courier diesela salgai. SS-AV. 943 78 30 16. Gazez.

Opel Kadett GT 1.8i autoa salgai. SS-AG. 105.000 Km. 943 76 18 95. Deitu 15:00etatik 17:00etara.

Seat Malaga autoa salgai. Diesela. 450 euro. 658 72 11 49.

Aprilia RS 50 cm³-ko motoa salgai. Gehigarri asko ditu. Prezio ona. 615 75 92 29.

Renault Kangoo 1900 D salgai. Bost urte. 6.000 euro. 606 17 21 28.

Citroën Saxo 16v autoa salgai. Bost urte. 6.350 euro. 943 79 87 36.

Kawasaki GPX 600 motoa salgai. Ondo dago. 1.200 euro. 943 76 64 01 edo 605 71 24 73.

Peugeot 306 autoa salgai. SS-AW. 605 74 05 23.

Yamaha SR 250 Special motoa salgai. 950 euro. 656 75 01 94.

604. BESTELAKOAK

Citroën, Peugeot eta Ford autoendako haguak (lantalak) salgai. Kosei markakoak. Neurria: 205,40, R17. 658 72 11 49.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Pago egurra salgai. 652 77 45 73.

Laster markako marrazteko mahai profesionala salgai. 943 78 24 79.

Karro denda salgai. Radet modelo. Ia berria. 943 76 03 13. Gazez deitu.

Adria 5.500 karabana salgai. Zazpi lagunendako. Berogailua, hozkailua, komuna. 3.600 euro, negoziagarriak.

Play-Stationa salgai. Oso ondo dago, apenas erabillita. 943 79 72 53.

Conver kanpinerako erremolke salgai. Merkea. 943 78 26 75. Iluntzetan.

Karro denda salgai. Hiru aldiz bakarrik erabillita. 900 euro. 658 72 11 49.

802. EROSI

Oboe bat erosiko nuke. Deitu gazez 943 77 13 11.

Txanponak. Era guztietako txanponak eta bankuko billeteak erosten ditut. Bila joan naiteke. 945 44 50 44.

806. GALDU

Elgeta. Samoyedo arrazako txakurra galdu da. Zuria eta iletua da. Izena: Txuri. 943 76 80 27.

807. AURKITU

Arrasate. Hilaren 4an, ateki bat aurkitu nuen San Andresen. Galdetu udaletxean.

Bergara. Ume baten urrezko eskumuturreko topatu dut Barrenkalean. Deitu: 943 76 46 38.

Arrasate. Udalako iturrian eguzkietako betaurrekoan aurkitu nituen. 943 79 82 01.

Oñati. Babolat markako tenis erraketa bat topatu nuen kiroldegiko aldegian. 943 78 29 19.

10/ RELAX

CLUB IYOLA
Elgetara bidea
BERGARA
943 76 11 29



ARRIETA & SAN MIGUEL

INMOBILIARIA - AGENTZIA



ARETXABALETAK

- Bedarretako San Miguel-en 50 m². Guztiz berrituko. Prezio interesgarria.
- Zaria kalean 77 m². Hiru logela, egongela, sukaldea, komuna, trastelekua. Argitsua.

ARRASATE

- Santa Marinan, 65m², hiruro logela, egongela, sukaldea, komuna eta trastelekua.
- Ferrerías kalean, 135m², lau logela, komun bi, trastelekua, garajea.

Tel : 943 71 17 81 • Fax: 943 79 20 54
Iturriotz kalea 23 • ARRASATE
e-mail: inmo@arrietasanmiguel.com
www.arrietasanmiguel.com

Zure oporrak urte osoan disfrutatzen...

Obra berriak eta bigarren eskuko aukera zabala

MEDITERRANEOA

- Torrevieja
- Salou
- Cambrils
- Miami Playa

PIRINEOAK

- Biescas
- Jaca
- Formigal
- Sallent de Gallego
- Villanua



IZARRAITZ INMOBILIARIA

HIPER EROSKI ZENTROA
Tel./Faxa: 943 79 98 60
mondragon@izarraitz.com
ARRASATE
Zapatuetan egun osoan zabalik

Arigara S.L.

Iturgintza

AIPAGARRI

Jokin Antxia

ARETXABALETA

Zapatuan egin zuen urteko batzarra Atzegik, urritasun psikikoak dituztenen elkarteak. Marixabel Isasmendi izan da 12 urtez Atzegiko ordezkaria Debagoiengan; orain, Jokin Antxia aretxabaletarrak hartu du kargu hori. Orain arte Aretxabaletako Aratz elkarteko kide izan da Jokin Antxia.



Ander Corcuera

ARRASATE


E tzi, domekan, denboraldiko Hyundai Kopako hirugarren eta laugarren lasterketak korrituko ditu Xerezko zirkuitoan Ander piloto gazteak. Bihar, zapatua, etziko lasterketarako denborak hartuko dituzte. Aurreko lasterketan egin zuen bezala, podiumera igotzea espero du Anderrek.



Jesus Moreno

MONDRAGOE

A kea sari berezia jasoko du aurten Jesusek. Horrela, urte askoan Arrasaten futbolaren alde egindako lana eskertu nahi dio Arrasateko Udaleko kirol erakundeak. Bestalde, Jonathan Pérez atletak jasoko du kirolari onenaren saria, eta orain arte Arrasate triatloi taldea izan denak, kirol talderik onenarena.



JAIOTAKOAK

Leire Badillo Ibabe. Eskoriatzan, maiatzaren 1ean.

Ines Hidalgo García. Eskoriatzan, maiatzaren 5ean.

Mikel Parra Navarro. Eskoriatzan, maiatzaren 6an.

Lorea Pagaldai Balanzategi. Eskoriatzan, maiatzaren 15ean.

Ainhoa Redin Intza. Oñatin, maiatzaren 17an.

Iker Elkorobarrutia Arango. Arrasaten, maiatzaren 19an.

HILDAKOAK

Amalio Del Pozo Valor. Eskoriatzan, maiatzaren 2an. 75 urte.

Mari Carmen Larrañaga Agirrezabal. Bergaran, 15ean. 73 urte.

Ramon Obeso Ardines. Oñatin, maiatzaren 15ean. 69 urte.

Juan Francisco Nieto Sánchez. Oñatin, maiatzaren 16an. 69 urte.

Roberto Egaña Urteaga. Oñatin, maiatzaren 16an. 61 urte.

Josefa Axpe Beitia. Eskoriatzan, maiatzaren 18an. 93 urte.

Felix Sacristán Gómez. Arrasaten, maiatzaren 19an. 69 urte.

Arantzazu Saiz Beitia. Oñatin, maiatzaren 20an. 36 urte.

Maria Isabel Moreno Garrido. Bergaran, 21ean. 61 urte.



Iker Elkorobarrutia Arango mondragoetarra eta **Catalina** ama, kolonbiarra. Iker maiatzaren 19an jaio zen, eta 3,45 kilo pisatu zuen. **Luis Alberto** da aita, bergararra.



Oier Sánchez Lekuona bergararra eta **Aiala**, hondarribiarra, eta **Fernando**, bergararra, gurasoekin. Oier maiatzaren 19an jaio zen, eta 3,450 kilo pisatu zuen.



Jesus Mari Palomero Txunai eta **Esther Fernández** maiatzaren 11n ezkondu ziren Aramaioko udaletxean. Bazkaria Gure Ametsa jabetxean egin zuten eta eztei-bidaian Dominikar Errepublikara joan dira. Zorionak, bikote, lagunak eta familia osoaren partetik!

Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez *Goienkariaren* ordezkarietzeko batera.

ESKELA

Arantzazu Saiz Beitia

Mikel Saiz GOIENAKo lankidearen arreba

Oñatin hil zen 2002ko maiatzaren 21ean, 36 urte zituela.

*Ez nau izutzen negu hurbilak
uda beteko beroan
dakidalako irauten duela
orainak ere geroan*




Goina Komunikazio Zerbitzuak

URTEURRENA

Juan Almandoz Arburua

Arrasaten hil zen 2001eko maiatzaren 22an.

Lehen urteurren meza domekan, maiatzaren 26an, 12:30ean, Arrasateko San Juan parrokian




*Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKELEN PREZIOA

Goienkaria
60 €.

Goienkaria +
Arrasate Irratia 75 €



Eperako Aurrezkia

EUSKADIKO KUTXA



Interesez
gozatzeko
beste
modua

Kanpineko jesarlekua	600 €	Urte 1	%2,63ko UTB*
Maleta-multzoa	1.250 €	Urte 1	%2,87ko UTB*
Grundig irrati-kasetea eta CDa	3.500 €	Urte 1	%3,04ko UTB*
Sukalderako Fagor tresneria	4.500 €	Urte 1	%2,97ko UTB*

Orain, Euskadiko Kutxan eperako ezarpena eginez gero, jenerotan eskuratuko dituzu interesak, **ez dirutan**. Eta pozik uzten ez bazaitu, 15 eguneko epea duzu eragiketa desegiteko.

Promozio honek PFEZren arauak betetzen ditu • Gairen bat amaitzen bada, Euskadiko Kutxak aukera izango du ezaugarri antzekoak edo hobeak dituen beste batez ordeztzeko • Promozio honek 2002-06-30era arte balio du

*Jenerotan egindako ordainketari dagokion UTBa

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



Zurekin Elkarlanean

HITZGEZIDUNAK

Luma

	Segada		Joko ho-nen egilea		Soldata
	Izena		Fruitu mota		
	Emakume dotorea				
	Nafarroako herria				
Jan eta edan gabe	Harri txintxarra				
Hondamena	Deitura				
					Iodoa
					Edari al-koholduna
Detektagailua					
Arrantza tresna					
			Hizki grekoa		
			Beldurti		Unatua
Zikloi tropikala					
Modua					
			Bokala		
			Emakume izena		
Gizon izena					Bokala
Izana					Igarobide
					Idi, hitz elkarketan
					499
Burdinola	Preso				
	50				
					Zezen zikiratua

BILABILATZ



UMOREGIROAN/ Juan Martin Elepuruk jasoak

Hauetako asko Juan San Martinen *Zirikadak* eta *Eztenkadak* liburuetatik jasoak dira.

URTAIN

Urtain bere sasoirik onenian zeuan eta jentiak ez zeukan beste konbestaziñorik. Tabernan alkartzen die bi plazentziar eta:

- Nor dok ba gaur kontraxiaua?
- Aleman bat.

- Alemana bai, baiña orizon-talekua ala bestelakua?

- Etxakixat zein Alemania klasetakua dan, baiña orizontal gaur gabian geldittuko dok.

Eta halaxe izan zan. Urtainek bere kontraxio alemana orizontal laga eban.

ODOLBAREKUA

Ganorabakua ei zan mortala Bergarako Altos Hornoseko langille

haura. Baria baiño odol gutxiago ei zeukan. Pentsau zelakua zan, berarekin zebillen batek zera esateko:

- Horrek tximinixa puntatik botata be ez leukek abixadatik hartuko!

KAPELANEKO PANADERIXAN

Kapelaneko panaderixan bezero bat sartu zan eta ugazabai esan zotsan:

- Zu, Kapela, atzo eruan neban ogixak kukaratxia zeukan.

Eta Kapelak atzeko hotzik barik kontestau zotsan:

- Ene ba, eta nik ogibittartekua kobrau biharrian ogixa bakarrik kobrau. Ni naiz ni etekalte.

EZETZASMATU!

Estepan Plazaola



Zenbat pilotari debagoiendar, txapeldun?

Eskez banakako pilota-txapelketaren inguruan beti sortzen da ikusmina eta aurtengoan ere bai. Finalera iritsi zen azkeneko debagoiendarra Aitor Elkoro izan zen, baina ez zuen txapela lortzerik izan. 1997an, Arretxek 22-18 irabazi zion eta 1999an, Aspe antolatutakoan, Eugik, 22-11. Baina, izan ote dugu txapeldun debagoiendarrik? Horra hor ba galdera: Debagoieneko zenbat pilotari izan ziren lehen mailako txapelketako irabazle XX. mendean?

- Hiru
- Bat ere ez
- Bi

1955ean eta 1956an, biak arrasatearrak.
Erantzun zuzena: Bi: Mondragones, 1917tik 1927ra, eta Arriaran II.a,

SOLUZIOAK



A	V	I	D	I	•	A	L	O
U	B	I	A	T	•	G	•	•
I	T	•	A	N	•	K	•	•
I	•	I	K	A	N	I	•	•
H	A	•	A	•	A	R	•	•
A	N	•	A	K	A	N	•	•
•	O	•	R	E	•	S	•	•
A	R	•	A	D	•	R	•	•
I	•	A	R	E	•	A	•	•
R	A	•	G	L	•	E	•	•
A	•	D	A	•	•	M	•	•
S	•	J	E	S	•	U	•	•
•	L	•	X	•	•	•	•	•

ASTEKO HOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkarte

ARIES

martxoak 21-apirilak 21

Etxean hainbat konponketa egiteko diru askotxo gastatu beharko duzu; horren ondorioz, zure aurrekontua desorekatu egingo da eta mailegu bat eskatu beharko duzu ustekabeko horri aurre egiteko. Bestalde, argi ibili ariketa fisiko eta uskurduak izateko joera izango duzu-eta.

TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21

Galera ekonomiko inportantea izango duzu eta, ondorioz, nahiko triste egongo zara. Bestalde, anaiaren/arrebaren batek arazoak izango ditu eta zuzana joko du laguntza bila, eta zuk behar duen laguntza eskainiko diozu. Azkenik, ahalegin zaitzez agiri guztiak behar bezala edukitzen, haziendakuskaritza egin diezazukete-eta.

GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21

Zure bizitzako sasoi honetan sentituko duzu ez zaudela batere gustura daramazun bizimoduarekin, eta hausnartu egingo duzu zein aldaketa egin behar duzun pentsatzeko. Bestalde, haginek arazoak emango dizute eta, hori dela eta, dentistarenera jo beharko duzu.

CANCER

ekainak 22-uztailak 22

Oso mainontzi ibiliko zara eta maitasuna jaso gurako duzu, bikotekideak emango dizun maitasuna ez zaizu-eta nahikoa irudituko; hori dela eta, beste zerbaiten bila abiatuko zara, beste pertsona baten bila, hain justu. Bestalde, lanean aldaketaren bat gertatuko da eta, ondorioz, ohikoa baino urduiago ibiliko zara.

LEO

uztailak 23-abuztuak 22

Lanean ez zara gustura ibiliko eta, ondorioz, hainbat aldaketa egitea pentsatuko duzu lanari dagokionez. Bestalde, emakumea bazara, min izango duzu bularrean; ez da larria izango, baina ondoeza eragingo duzu.

VIRGO

abuztuak 23-irailak 22

Maitasun kontuetan ez zara ase sentituko eta, ondorioz, arazoak izango dituzu bikotekidearekin. Bestalde, lanean hainbat aldaketa gertatuko dira eta zure buruari galdetuko diozu ea merezi dizun daramazun bidean aurrera egitea.

LIBRA

irailak 23-urriak 22

Estututa sentituko zara daukazun erantzukizun familiarrengatik, eta ohikoa baino umore txarra izango duzu. Bestalde, argi ibili zer esaten duzun, maite duzun pertsona bati min egin diezazukezu-eta.

SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22

Zure bizitzako alderdi guztietan ideia-nahasketa handia bizi izango duzu eta hobe izango da, zure hobe beharrez, erabakirik hartzen ez baduzu; hausnarketa izango duzu terapia egokiena.

SAGITTARIUS

azaroak 23-abenduak 21

Lanean arazoak izango dituzu; izan ere, norbait zutaz gezurrak esaten ibiliko da, inbidia jota. Bestalde, energiaz gainezka egongo zarenez, errokei aurre egiteko gertu egongo zara.

CAPRICORNUS

abenduak 22-urtarrilak 20

Lagunen batek traizio egingo duzu eta horrek pentsatu eragingo duzu ibiltzen zaren jendeak merezi duen edo ez. Bestalde, lepoko min handiak izango dituzu eta, hori dela eta, fisioterapeutarenera jo beharko duzu.

AQUARIUS

urtarrilak 21-otsailak 20

Hainbat proposamen egingo dizkizute amodio-kontuetan ibiltzeko; horren ondorioz, bikotekide egonkorra badaukazu, arazoak izango dituzu harekin eta bikotekidearekin ez badaukazu, berriz, pertsona bat baino gehiago ezagutuko duzu amodio-kontuetan ibiltzeko, baina, azken baten, moko-kadak baino ez dira izango.

PISCIS

otsailak 21-martxoak 20

Diru askotxo galduko duzu eta bi arrazoiengatik gerta daiteke: ostu egingo dizute diru hori edo, zeharo mozortuta egonda, ez zara konturatu-ko zer galtzen duzun ere. Bestalde, edaten eta jaten gehiegikeriak egingo dituzu eta, ondorioz, sabeleko mina eta digestio gaitzak izango dituzu.



Goiena Telebista

Posta elektronikoa: goitb@goiena.com



AMAGOIA LASAGABASTER

'SARRERA DOAN'

"Ikusmiran atalak oso politak izan ohi dira"

Goiena Telebistako aurpegi ezagunenetakoa dugu Amagoia Lasagabaster aretxabaletarra. Izan ere, *Sarrera doan* saioko aurkezlea da. Horrez gain, GOITBko albistegietan ere badihardu kazetari lanetan, bai eta GOIENKARIAn ere, Aretxabaletako edizioan, hain justu ere.

Zinema, musika, antzerkia, pintura..., zein nahiago?

Zinema eta musika barik nire bizimodu nahiko grisa izango litzateke. Antzerkia eta pintura gustatzen zaizkit, baina biak ere neurrian. Derrigorrean bat aukeratzekotan zinemarekin gelditzen naiz.

Eta zein estilotako zinema duzu gustuko?

Akziozko filmak, maitasun istorioak, komediak... baina batez ere, drama triste eta handiak ditut gogoko.

Telebista ala prentsa idatzia?

Telebistarekin gelditzen naiz. Lan egiterakoan erritmo biziagoa eskatzen du eta, momentu batzuetan gogorra bada ere, azkenean egindako lanaz gusturako sentitzen naiz. Hala ere, prentsa ere gogoko dut.

Atxabalta Telebistan hasi zinen eta orain GOITBn zaude. Zein da bien arteko desberdintasuna?

Ez dauka zerikusirik batak bestearekin. Atxabalta Telebistan medio gutxi genituen. GOITBk, berriz, urte askoko ibilbidea du eta hori nabaria da.

Gustura Sarrera doan-en?

Bai; lan handia egiten dugu eguneroko saioa gertatzeko, baina emaitza ona dela uste dut.

Eta zein da saioan gustuko duzun atala?

Ibarrean zehar egiten ditugun *Ikusmiran* atalak oso politak izan ohi dira.



Asteko programazioa/Maiatza 24-30

EGUBAKOITZA 24	ZAPATUA 25	DOMEKA 26	ASTELEHENA 27	MARTITZENA 28	EGUAZTENA 29	EGUENA 30
14:00 Berriak 14:30 Sarrera doan 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak	14:00 Xeleberri jaietan 25. Euskadiko Dantza suelta Txapelketa Domekan jokatu zen txapelketako final handia eskainiko dizuegu. Bergarako San Martin plazan jokatu zen finala. Sarrera doan Soinuz blai Astebete	14:00 Xeleberri jaietan 25. Euskadiko Dantza suelta Txapelketa Domekan jokatu zen txapelketako final handia eskainiko dizuegu. Bergarako San Martin plazan jokatu zen finala. Sarrera doan Soinuz blai Astebete	14:00 Berriak 14:30 Astebete 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak 20:00 Berriak 20:30 Goienasport Julen Iriondo kazetariak ibarreko kirol taldeen gainbegiratu zabala egingo digu. 21:30 Berriak	14:00 Berriak 14:30 Goienasport 15:30 Berriak 20:00 Berriak 20:30 Xeleberri 21:00 Iparrorratza Maroko globoz zeharkatuko dugu Urko Garamendirekin. 21:30 Berriak	14:00 Berriak 14:30 Xeleberri 15:00 Iparrorratza 15:30 Berriak 20:00 Berriak 20:30 Ekilan Ibarreko enpresa esparrua mahai gaineratuko du Alberto Gorritiberea irrati esatariak. 21:30 Berriak	14:00 Berriak 14:30 Ekilan 15:30 Berriak 20:00 Berriak 20:30 Sarrera doan Amagoia Lasagabaster kazetari eta aurkezleak hainbat proposamen egingo digu asteari begira. 21:00 Soinuz blai 21:30 Berriak

TELEBEGI/Oihana Elorza

Tronpa

Irtsi dela azkenean ditxosozko Eurobisiona. Gaur arte paliza galanta eman digute kontu horrekin, baina ez dakit ba bihartik aurrera egoera aldatuko ote den, hildakoa berpiztea lortu baitute eta hori mirari handiegia da berehala ahazteko. Chenoa, Bisbal, Bustamante, Tenorio..., eta Rosa. Denok ikasi ditugun izen berriak. Eta Shin Chan?

Tronpagatik edo abestiagatik, baina hitzetik hortzera dabil aspaldian hau ere, besteen pare. Ama batek haserre deitu zuen behin irrati batera alabaren gelako mutikoen neskatilei gonak altxatzen dizkietelako. Ume mukizu horrek erakutsi omen die. Guraso talde bat, berriz, Arartekoari idatzi bat bidaltzeko gertu dago gehitzen ari diren bihurrikaria hauen aurka zerbait egin dezan eskatzeko.

Apal-apal etorri da Japoniatik, baina agudo nahastu ditu bazterrak, Euskal Herrikoak eta Kataluniakoak bai, behintzat. Hau bai, fenomeno!

KAMERAURREAN



"Inor badau, ba, gazterik? Baserrixen ez dot umerik ikusten baserritar edo pastore danik. Ezaguketan doten pastoriek ez zien ezkondu ez ezer be. A morir!"

Joxe Bixente Etxabe / Artzaina
"BERRIAK" (2002-05-20)



"Palestinarrak erresistentiek die. Holakoxe egoeretan baiño eskaxaguan egon die eta konfiantza daukot jarraituko dauela borrokatzen."


Paul Nicholson / EHNE
"BERRIAK" (2002-05-22)

Eta zu, zergatik ez?

Telebistako **aurkezle** izan nahi baduzu deitu, atepak zabalik dituzu zure ibarreko **telebistan**.

Otalora Lizentziaduna 31 • ARRASATE • 943 71 2393





Euskararen Eguna 2002

ARETXABALETAK
Maiatzak 25
zapatua

loramendi
euskera elkarteak

Atzeskua

MAIDER OSA

Manex Agirre/Bertsolaria

Printzipal antzokiko helburu printzipala beteta, ezta?

Gutziz beteta. Bai niri dagokidanez, bai Arabari dagokionez, baita antolakuntzari dagokionez ere.

Espero zenuen hain urrun iristea?

Banekien denok nahiko parekatuta ibiliko ginela, nahiz eta Asier Otamendi beti maila bat gorago egon. Suerte apur batekin bigarren geratu naiz.

Arabako Txapelketako errebelazioa izan zarela entzun dut.

Bueno, hori esatea gehiegitxo ere bada. Ez dakit, beharbada gaztea naizelako esango dute hori. Hori entzuteak motibazio apurren bat ematen du aurrera segitzeko, baina

gauzak ez diren lekura eramatea ere ez da komeni. Lasai hartu, eta aurrera!

Dena dela, txapela gertu izan duzu.

Ez pentsa! 30 puntuko alde atera zidan Otamendik. Hala ere, finaleko beste kideek baino gertuago izan dut, eta hori pozgarria da.

Ilea moztuta dotore asko agertu zinen finalean. Bertsotan ez ezik, look-arekin ere sentsazioak piztu guran?

Ez. Aurretik ile dezente nuen, eta hori izan da ilea mozteko arrazoia, ez finala. Dena dela, jertse dotorea eramaten ahalegindu nintzen finalera...

Txapela irabazita ere, behintzat, buruan kabi zedila, ez?

Bai; leku pixka bat uzten ahalegindu nintzen.

Finalera ordurako iritsi zinen?

Ordubete lehenago-edo. Zerbait hartu, beste lagunekin egon, lasaitu...

Harritzekoa, ezta?

A! Bertsolariak garelako diozu!

Ez. Bertsolaria zarela-ko, baina zu peto-petozara, puntual ez heltzeari dagokionez, behintzat...

Bueno, nik badakit nora iritsi naitekeen berandu eta nora goiz. Horrelako leku batera berandu iristea gehiegitxo izango litzateke.

Herritarren animazioaz kezatzeko motiborik ez, ezta?

Oso pozik nago. Aramaio herriak finalerako autobusa antolatzea ere izugarria izan zen, eta beti alboan izan dira, gainera. Eskertzekoa da hori.

Bertsotik bertsorako hutsarteetan, poesiari eta narratioari ere utziko diezu tartea hemendik aurrera.

Bertsotan hasi aurretik nik banuen beste bokazio hori. Gustuko dut idaztea. Nola zaletasun batekin hala besteak bide propioa darma, eta hemendik aurrera ere, orain arte moduan, biak eramango ditut aurrera.



“Suerte apur batekin bigarren geratu naiz Arabako Txapelketan”

“Txapelketako errebelazioa izan naizela entzutea gehiegitxo ere bada”

“Gustuko dut idaztea. Bertsotan hasi aurretiko bokazioa da hori”

► Aramaioarra / 20 urte / Arabako Bertso Txapelkun ordea

PIPERRAUTSA

Elkarri

Bilboko manifestazioan izan nintzen aurreko larunbatean. Neurritz txukuna izan zen, nahiz egonda nagoen handiagotan. Eta gazte gutxi zegoen, heldutasuna nonbait adinak ematen du. Hala ere, gogoz joan nintzen, eta pozik itzuli.

Elkarri ez den inork, eta bakea ez den ezerk, ez zukeen bilduko han bildu zen jendea. PP bakarrik falta izan zen, ordezkaritza esanguratsuen artean. Haien ustez, han geundenak gaude isolatuta, ez beraiek. Ingelesek ere badute harrokeria hori. “Mantxako kanalean hedatu den laino mardulak isolatuta dauka kontinentea”, idatzi zuen Londresko egunkariak. Monkloa aldean ere bada laino mardulik.

Orain, demagun Bilbon ordezkatutako guztiak bakezale direla. Zein bakeren zaleak, ordea? Nik Andoni Egañarena hartu nuen aspalditxo. Honela bukatu zuen behin Andonik bertsoa: “Bakea ez da gerrarik eza, gerrarik nahi eza baizik”. Eta bakezale askotxo ikusten dut inguruan nor bere gerra irabazi nahian.

Arazo bortitzak daudenean, gogo ariketa handia dago egin beharra gerrarik nahi ez izateko. Sinetsi behar da badagoela gerra baino bide hobirik. Eta horretarako, tresnak adostu behar dira erabakiak hartzeko, hiztegia egokitu hitzak ez daitezen arma izan, eta eskua eskaini zabalik eta hutsik.

Horren alde joan nintzen Bilbora. Izan ere, bakea iritsiko da bakoitzak bestea onartu eta eskua luzatzen diogunean elkarri.

MIKEL IRIZAR

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

SUKALDE ERAKUSKETA: Udala Plaza z/g • Tel.: 943 79 00 43
 BAINU ERAKUSKETA: Zarugalde 52 • Tel.: 943 79 99 42
 ARRASATE

FAGOR

